

Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Balio etikoak



Gida didaktikoa

DBH 3

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

Edukia

SARRERA	3
HELBURUAK	6
EDUKIAK.....	11
EDUKI MULTZOAK.....	11
GAI NAGUSIAK	13
NOIZ ETA NOLA ERABILI.....	24
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK	33
1. <i>Gaia:</i> Emakume trikitilariak. Historia.....	33
2. <i>Gaia:</i> Emakumeak literaturan. Historia	42
3. <i>Gaia:</i> Emakume antzezleak. Gaur egun	52
4. <i>Gaia:</i> Feminismoaren olatuak. Gaur egun	62
5. <i>Gaia:</i> LGTBIQ+ mugimenduaren hastapenak. LGTBIQ+	72
6. <i>Gaia:</i> Emakumeak bertsolaritzan (XV-XIX. mendeak) Historia	81
7. <i>Gaia:</i> Feminismoaren bilakaera. Gaur egun	89
8. <i>Gaia:</i> Aniztasuna eta integrazioa. Aniztasuna	97
ESPAZIOEN ANTOLAKETA	105
DENBORALIZAZIOA	106
MATERIALAREN EGILEAK.....	108
BIBLIOGRAFIA	110

SARRERA

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak www.ahotsak.eus proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea da, ahozko jardunaren bitartez. Eta, bidez batez, belaunaldien arteko hurbilketa egitea, lehenaldia eta oraina lotuz.

“Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua 2015ean sortu zen, EIMA 2.0. egitasmoari esker. DBHko **Herritartasunerako Hezkuntza** irakasgaiarako egin genituen lehen proposamen pedagogikoak:



Ondoren, **Euskara eta Literatura** irakasgaiari heldu genion, eta 2016tik 2020ra bitartean DBHko eta Batxilergoko maila guztietarako materiala prestatu genuen:



2021ean, berriz, **Balio etikoak** irakasgaiari heldu genion, hasierako lan-lerrora bueltatuta. Azken bi urteotan **DBH1erako** eta **DBH2rako** materiala prestatu dugu:



Orain arteko lanketa guztiak <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean daude erabilgarri, euren gida didaktikoekin (proiektuetan, EIMA 2.0. aukeratuta).

Aurtengo proposamena

Balio Etikoak ikasgaiarekin jarraitu dugu aurten ere, LOMCE legeak ekarritako aldaketak aintzat hartuta. DBH3rako prestatu dugu materiala eta orain arte prestatutako ikasmaterialarekin bateragarria da: osatu egiten du.

8 proposamen pedagogiko prestatu ditugu. LGTBIQ+ kolektiboa, genero-berdintasuna, diskriminazio-egoerak eta aniztasuna dira gai nagusiak, eta bi begirada jorratu ditugu: atzera begirakoa (historikoa) eta gaur egungoa.

Zerk bereizten du gure materiala?

Ahazkotasuna du abiapuntu, edukiak jorratzean. Curriculumean ahazkotasunari garrantzi handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen da ikastetxeetan. Ahazkotasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu. Ahazkotasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita.

Herriaren jakinduria, **jakintza kolektiboa**. Hori da beste ezaugarrietako bat. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen herritarren ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean. Adituena zein herritar xeheena. Gazteena zein adinekoena. Hezur-haragizko pertsonak kontatutakoak dira proposamenen ardatza, eta horrek gertutasuna ematen du. Gainera, ikasmaterialak Curriculumearen euskal dimentsioa lantzeko balioko du, euskal mundu ikuskeraren erakusgarri den heinean.

Badira gai batzuk lehentasunezkoak eta unibertsalak direnak. Betikoak eta betiko direnak: balioak, errespetua, elkarbizitza, berdintasuna... Horiek etxean erakusten dira neurri handi batean; bai lehen eta bai orain. Hori bai, ikastetxeetan ere **balio etikoak** gero eta indar handiagoa dute. Izan ere, ezinbestekoa da eskolak ikaslea eguneroko bizitzarako prestatzen laguntzea. Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen, baina azken belaunaldietan ez, bizimodua goitik behera aldatu baita: teknologia berrien aroan murgilduta bizi gara. Guk ere **transmisioa** egiteko modu berriak aurkitu behar izan ditugu, **teknologia berriak** erabilita eta modu erakargarrian aurkeztuta.

Hala, batetik, gure aurrekoen bizipenak, adineko jendearenak, ezagutzera emango ditugu. Izan ere, gizartearen barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera... gizartearen bilakaeraren ondorio dira; nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo gazteen ahotsa ere aintzat hartzea, orain haiek bihurtu behar dutelako lemazain, eta ikasleak gazteekin gehiago identifikatzen direlako. **Belaunaldien arteko zubi-lana** egiten dugu. Soka beraren katebegiak gara denok.

Ikasmaterial digital osagarria da gurea, Curriculuma aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, ez beste nonbaitetik hartua eta egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen da eta Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber, erabiltzeko erraza da, intuitiboa, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin daitekeelako: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Diseinu erakargarria du. Eta berdintasunari buruzko lanketak egiteko baliagarria gertatzeaz gainera, berdintasuna aintzat hartzen du, bai gaiak aukeratzean, bai proposamen pedagogikoetan.



Emakumeak
bertsotan



Nokaren galera
Oñatin



Trans izatea



LGTBIQ+
kolektiboa



Emakume
idazleak



Matxismoa
ezkutuan?

HELBURUAK

Gure ikasmateriala DBHko 3. mailako irakasleei eta ikasleei dago zuzendua, eta **Balio etikoak** irakasgaiarekin dago lotuta. DBHko 1. eta 2. mailetarako prestatutako ikasmateriala osatzen joateko balio du.

EIMA 2.0. deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmateriala digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziarekin argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material osagarria da.
 - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
 - Aniztasunari erantzuten dio.

Proiektu honen helburuetako bat ahozkoahotsa lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota Ahotsak.eus proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola-curriculumetan (175/2007, 23/2009 eta 236/2015 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta baita ere ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena:

“Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko; gainera, ezinbestekoak dira trebetasun kognitibo-linguistikoak garatzeko eta arlo guztietako ezagutzak eraikitzen laguntzen dute. Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, beharrezkoa da eskolak euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu” (HEZIBERRI 2020: 236/2015 Dekretua)

Ahozkoahotsa lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoen eta gazteen testigantzek. Batetik, hizkera dago: euskararen aberastasuna. Bestetik, kontatzen dutena: historia, iritziak eta jakintzak. Haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak

euren kabuz ondorio batzuetara heldu daitezten, talde-lanaren laguntzaz. Bide batez, besteen hitzei balioa emateko, denen iritzia entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balioko du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez egin dezaten balio dute gure bideoek eta proposatzen ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balio du.

Legezko Xedapenen testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean (HEZIBERRI 2020: 236/2015ko Dekretua) jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai oinarrizko zehar-kompetentziekin eta baita diziplina barneko kompetentziekin ere.

Oinarrizko zehar-kompetentziei dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedek betetzen ditu (236/2015ko Dekretua): *Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia; Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia; Elkarbizitzarako kompetentzia; Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia; Norbera izaten ikasteko kompetentzia*. Helburu horietako azpiatal guztiak izan ditugu kontuan ikasmaterial honetako gaiak eta jarduerak aukeratzeko orduan, eta bereziki hauek:

1-Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia, *komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.*

- *Hitzezko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea.*
- *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguruan erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.*

2-Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. *Ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, ikasitakoa beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzeko eta norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.*

3-Elkarbizitzarako kompetentzia. *Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea, guztien eskubide eta betebeharrak errespetatuz.*

- *Norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteenak entzun eta kontuan hartzea.*
- *Taldean ikastea eta lan egitea, elkarlanean eta aniztasuna balioetsiz.*
- *Printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren arauak betetzea.*
- *Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.*

4-Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia, ideiak ekintza bihurtu daitezen.

5-Norbera izaten ikasteko kompetentzia, pertsonaren autorrealizatorako, etengabeko hobekuntzaren bidez.

- *Portaera soziala eta moralak autorregulatzea.*
- *Nork bere buruaren gaineko kontzeptu eta estimu on eta errealistak edukitzea.*
- *Nork bere erabakiak modu autonomoan hartzea, betebeharrez ere jabetuz.*

Helburu didaktiko zehatzagoei begira, esan beharra dago DBHn «Balio etikoak» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu (236/2015 dekretua). Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lortu daitezkeela uste dugu.

Etapako helburuak honako hauek lirateke:

1. Giza izaera onartzea dimentsio indibidualean zein sozialean, eta norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, dimentsio morala barne, norbanakoen arteko desberdintasunak eta pribatutasuna errespetatzeko, eta bere buruaren eta ikaskideen ikuspegi zuzena edukitzeko.

2. Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak erabiltzea, eta sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, berdinen arteko jardueretan, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.

3. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak aitortutako eskubideak zein diren jakitea, bere egitea eta aintzat hartzea; unibertsalak, zatiezinak eta elkarri lotuak direla ikusi eta onartzea, eta irizpide moduan hartzea gizarte-gertaerei eta egoerei zein norbanakoen eta taldeen jarrerari buruzko iritziak emateko.

4. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna babestea eta bidegabekeria eta diskriminazio oro arbuiatzea, batez ere generoarekin eta hark dakarren indarkeriarekin lotutakoak, bai eta etnia, sinesmenak, desberdintasun pertsonalak eta sozialak, orientazio afektibo-sexuala oinarri dutenak eta beste edozein motatakoak ere.
5. Bizitza demokratikoa, politikan eta gizartean parte hartzea eta beste antolaketa modu batzuetan parte hartzea (lankidetzak, elkarteak, boluntarioak...) zer den jakitea eta aintzat hartzea, erreferentzia gaur egungo EAE eta haren egoera historikoa izanda, gure gizarte-ongizateko sistema mantendu eta hobetzeko ditugun betebeharrak gure gain hartuz, bidezko garapen jasangarriarekin konprometitutako bizi-proiektu bat eraikitzeko bidean.
6. Giza eskubideak urratzea dakarten egoerak identifikatzea eta aztertzea, direla indarkeria estrukturalak eragindakoak (gerrak, pobrezia, muturreko desberdintasunak...), dela terrorismoak eragindakoak, genero-indarkeriak eragindakoak, berdinen arteko indarkeriak eragindakoak... Bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna helburu duten ekintzak aintzat hartzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko.
7. Teoria etikoen berri izan eta haiek aztertzea, eta jakitea zein diren gaur egungo gizarte-gatazka eta gatazka moral nagusiak, jarrera kritikoa izateko komunikabideen bidez, Internet bidez eta beste gizarte-erakunde batzuen bidez (eskola, esaterako) helarazten diren eredu eta estereotipoekiko.
8. Nork bere diskurtso etikoa eratzea, hari dagokion irizpide moralarekin, eta etikaren eta moralaren berezko ezaugarriak eta elkarren arteko harremanak aztertzea, bizitzako egoerei inpartzialtasunez eta ikuspegi konstruktiboz heltzeko.
9. Justiziaren eta politikaren artean zer lotura dagoen jakitea, elkarren mendekoak direla aztertzea eta batak besteari informazioa nola ematen dioten jakitea, justizia eta bizitza demokratikoko funtsezko elementutzat aldarrikatzen duen herritar izan gaitezen sustatzeko.
10. Etika, zuzenbidea eta giza eskubideak lotuta daudela jabetzea, eta balio etikoek zer zeregin duten eta historian zehar zuzenbidean eta giza eskubideetan nola gauzatzen diren aztertzea, gure gizartean balio horiek zein mailatan betetzen diren ikusteko.

11. Etika eta zientzia eta teknologia lotuta daudela ohartzea, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak sortutako egoera gatazkatsuak planteatuz eta kritika eginez, haiei buruzko iritzi moralak egiteko aukera ematen duten irizpide etikoak proposatzeko.

EDUKIAK

Balio etikoak irakasgaien DBHko 3. mailarako zehaztutako edukiekin bat dator gure ikasmateriala.

EDUKI MULTZOAK

1. eduki multzoa: eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.)
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintza eta egindako lanak ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibotasuna).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. eduki multzoa: balio etikoak, zuzenbidea eta Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsala

- Legezketasuna eta legitimitatea. Arau juridikoen oinarria. Eztabaida historikoa.
- Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsala. Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsalaren ikuspegi historikoa.
- Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKEek) Giza Eskubideen defentsan egiten duten lana, EAEn eta mundu zabalean.
- Ekimen pertsonala, proposamenak egitean eta abian jartzean.
- Garrantziko informazioa bilatzea eta hautatzea.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Giza Eskubideen errespetuaren berdintasunaren aldeko jarrera argiak adieraztea.
- Politika, erlijioa edo bestelako jatorria duen indarkeria espresuki gaitzestea eta gizaduintasuna balio gorentzat jotzea.
- Genero-indarkeria eta diskriminazioa esanbidez gaitzestea.
- Genero-berdintasunari jarraiki jardutea.

3. eduki multzoa: balio etikoak, zientzia eta teknologia

- Ikerketa zientifikoak ba al du mugarik?
- Ikerketa zientifikoaren emaitzen aplikazioak, hau da, teknologiak, ba al du mugarik?
- Bizitza pribatuan teknologia kontrolik gabe erabiltzearen arriskuak.
- Zientzia eta interes ez-zientifikoak.
- Pribatutasunerako eskubidea. Interneten erabilera segurua.
- Hainbat iturritako informazioa erabiltzea, genero ikuspegia zainduz.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Hainbat iturritako informazioa maneiatzea.
- Garrantziko informazioa bilatzea eta hautatzea.
- Ikaskideen informazio pribatua tratatzean datu pertsonalen eskubidea bete beharra dagoela aintzat hartzea.
- Iritzi desberdinak errespetatzea.
- Ekimena azaltzea.

Balio etikoak ikasgaiarekin lotutako **8 fitxa pedagogiko** prestatu ditugu DBHko 3. mailarako, betiere herritarren testigantzak oinarri hartuta. Proposamen horiek **lau gai nagusitan** banatuta daude, eta atal bakoitzak **fitxa didaktikoak** ditu.

GAI NAQUSIAK

A. DISKRIMINAZIOA HISTORIAN ZEHAR

Diskriminazio-egoera batzuk jorratu ditugu atal honetan, ikuspegi historiko batetik. Hala, sasoi bateko berdintasunik eza agerian geratzen da. Genero-berdintasunari erreparatu diogu, plazara ateratzen zen emakumearen egoera zein zen ezagutzera emateko. Esparru pribatutik publikora ateratzen ausartu ziren emakumeen gorabeheren berri emango dugu, kulturako hiru alorrekin lotuta: bertsolaritza, musikagintza eta literatura. Badirudi XIX. mendera arte emakumeek askatasun gehiago izan zutela bertsotan eta musikagintzan aritzeko, baina XX. mende hasierarako ez zen ia trikitilari eta bertsolaririk ikusten plazetan. Ahanzturara kondenatutako emakumeen izenak eta aurpegiak gogoratzeko ere balio du atal honek.



Gaiak:

- Sasoi bateko emakume trikitilariak (XX. mendea)
- Emakumeak bertsolaritzaren historian (XV-XIX. mendeak)
- Emakumeak euskal literaturaren historian (XVII-XIX. mendeak)

B. GENERO-BERDINTASUNA GAUR EGUN

Feministak garela diogu, baina ba al dakigu zein den emakumearen egoera gaur egun? Ba al dakigu zer nolako zapalkuntzak dauden, oholtza gainean edo kamera atzean,

adibidez? Eta ba al dakigu nola iritsi garen gaur egungo egoerara? Zein izan da feminismoaren bilakaera Euskal Herrian? Zenbatgarren olatuan gaude? Gai horiei buruz hausnartu, zapalkuntza-egoerak identifikatu eta diskriminazio ororen kontrako jarrera garatzea oso da garrantzitsua. Horixe da atal honetako proposamenen helburu nagusia: gaur egun generoaren alorrean dauden hutsuneak ezagutaraztea eta errealitateaz jabetzeko tresnak ematea. Benetako egoerak aztertu eta kritikoki ebaluatzeko baliabideak eskainiko ditugu.

**Gaiak:**

- Emakumeak antzerkigintzan: esperientziak
- Feminismoaren olatuak
- Feminismoaren bilakaera Euskal Herrian (1980-2000)

C. LGTBIQ+ KOLEKTIBOA

Lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen kolektiboaren (LGTBIG+) bizipenak eta aldarrikapenak ezagutaraztea da proposamen honen asmoa. Orientazio afektibosexualaren aukerarekiko eta genero-nortasunarekiko errespetua sustatzea, azken batean. Heterosexualitatearen parametro klasikoak eta etiketak zalantzan jartzeko eta pentsarazteko bidea egitea. Kolektibo horren historiaren zatitxo bat ezagutuko dugu, protagonisten ahotik.

**Gaiak:**

- LGTBIQ+ kolektiboaren historia Euskal Herrian

D. ANIZTASUNA

Gure gizartea gero eta anitzagoa da, baina sarritan ez gara aniztasun horretaz jabetzen. Nor bere baitara bilduta bizi da. Kultura-aniztasuna eta eleaniztasuna ezagutu eta baloratu beharrekoak dira, elkarbizitzarako, eta hori da atal honen helburua: aniztasunari buruzko hausnarketa eragitea, Euskal Herrian bizi diren hainbat kulturatako herritarren testigantzen bidez. Erraza al da integrazioa Euskal Herrian? Aberastasun moduan ikusten al dugu aniztasuna? Ditugun aurreiritziez jabetzeko balio du atal honek.

**Gaiak:**

- Aniztasuna eta integrazioa

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

Saso bateko emakume trikitilariak (Historia)

XX. mendearen hasieran ez zen emakume trikitilaririk ikusten plazetan. Ateratzen zirenek fama txarra hartzen zuten. Bideo-proposamen honek zenbait pandero-jotzaile eta soinu-jotzaile ezagutzeko parada ematen du, besteak beste, Maurizia Aldeiturriaga, Primi Erostarbe, Juliana Zubizarreta, Ramoni Pikabea eta Romualda Zuloaga. Mauriziak bere burua animatzen zuen, pandero-hotsen artean "Aupa Maurixia!" esanez. Kulturgintzan dabiltzan belaunaldi berrietako neskontzat ikur bihurtu da "Aupa Maurixia!" aldarria.



- Lantzen diren kontzeptuak: trikitilariak, pandero-jotzaileak, euskal musikagintza, oholtza, abeslariak, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Emakume musikarien bizipenak eta esperientziak ezagutzeko interesa.
 - Katak eta musikagintza genero-ikuspegitik lantzeko irrika.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea.
 - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea.
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.

Emakumeak bertsolaritzan, XV- XIX. mendeak. (Historia)

Bertsolaritza oso mundu maskulinoa zen XX. mendearen hasieran: emakumea plaza publikoan agertzea gaizki ikusita zegoen. Baina badirudi aurretik emakumeek bertsotan egitea ohikoagoa zela, zerbait naturala. Gai hori ikertu duten pertsonak elkarrizketatu ditugu, garai bateko emakume haiei buruz gehiago jakiteko. Non kantatzen zuten? Nolako bertsoak egiten zituzten? Bidenabar, bertsolaritzarekin lotutako proposamen sortzaileak proposatzen ditugu, berdintasunarekin lotuta eta ahozkotasuna lantzeko.



- Lantzen diren kontzeptuak: bertsolaritza, genero-diskriminazioa, berdintasuna, plaza, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Bertso munduko emakumeen historia ezagutzeko interesa.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea.
 - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea.
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutu eta erabiltzeko gogoia.

Emakumeak literaturan (Historia)

Euskal literaturan ezagun egin diren emakume idazleak gutxi dira, eta gehienak azken hamarkadetan atera dira letren plazara. Proposamen honen helburua begirada historiko bat eskaintzea da. Aurretik, ba al zegoen emakumerik literaturan? Zein ziren eta zer idatzi zuten? Nor izan zen euskaraz idatzi zuen lehen emakumea? Literatura-adituak elkarrizketatu ditugu, haien iritziak jaso eta ezagutzera emateko. Euskal literaturako bost emakume idazle ezagutuko ditugu (XVII-XIX. mendeak): Maria Estibaliz Sasiola, Bizenta Mogel, Rosario Artola, Mayi Ariztia eta Katalina Eleizegi. Bidenabar, ikasleen literatura-sormena aktibatzeke proposamenak ere egingo ditugu.



**Emakumeak
literaturaren
historian**

- Lantzen diren kontzeptuak: euskal literatura, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Emakume idazleen historia ezagutzeko interesa.
 - Literatura genero-ikuspegitik lantzeko irrika.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea.
 - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea.
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.

Emakume antzezleak: esperientziak (Gaur egun)

Gero eta gehiago dira emakume antzezleak. Gaur egun aukera- eta tratamendu-berdintasuna ote dago antzerkigintzan? Gizonezkoen baldintza beretan egiten al dute lan? Egon al da aldaketarik eta aurrerabiderik azken urteotan? Izan ere, munduko hainbat tokitan emakumeek jazarpena salatu izan dute, zinemagintzan bereziki. Hainbat emakume antzezle elkarrizketatu ditugu, haien iritziak jaso eta ezagutzera emateko. Gainera, ikasleen sormena eta aktore sena aktibatzen proposamenak ere egingo ditugu. Besteak beste, antzezteko aukera izango dute.



**Emakume
antzezleak**

- Lantzen diren kontzeptuak: antzerkigintza, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduzkoa, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Emakume antzezleen bizipenak eta esperientziak ezagutzeko interesa.
 - Zinema eta antzerkigintza genero-ikuspegitik lantzeko irrika.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea.
 - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea.
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.

Feminismoaren olatuak (Gaur egun)

Feminismoaren historia kontatzeko garaian, olatuez hitz egiten da. Zenbatgarren olatuan gaude? Batzuek diote olatuen teoriak Europako emakume zurién historia kontatzeko bakarrik balio duela. Olatuena baliagarria al da gaur egun ere? Hainbat feminista aditu elkarrizketatu ditugu, gai hori jorrazteko. Hala, feminismoaren mundu mailako historia ezagutzeko eta ikertzeko aukera izango dugu, eta baita gaur egungo ikuspegiak ere.



- Lantzen diren kontzeptuak: feminismoaren olatuak, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, militantzia.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Feminismoaren historia ezagutzeko interesa.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea.
 - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rola baztertzea.
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.

Feminismoaren bilakaera (Gaur egun)

Atal honetarako prestatutako bideoa feminismoaren hastapenei buruz DBH2rako prestatu genuenaren jarraipena da. Lehenengo bideoan 70eko hamarkadako gorabeherak jaso genituen eta bigarren honek Euskal Herriko mugimendu feministaren bilakaeraren berri ematen du: 80ko hamarkadatik 2000. urtera arte. Proposamen honen bitartez borroka feministek Euskal Herrian zer ibilbide egin duten azaltzen dugu. Zein izan dira borroka nagusiak? Hainbat militante feminista elkarrizketatu ditugu, eta haien testigantzekin bideoa osatu.



Feminismoaren bilakaera

- Lantzen diren kontzeptuak: feminismoaren historia, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, militantzia.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Feminismoaren historia hurbila ezagutzeko interesa.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea.
 - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea.
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutu eta erabiltzeko gogoia.

LGTBIQ+ mugimenduaren hastapenak (LGTBIQ+)

Lesbiana, gay, trans, bisexual, intersexual, queer eta beste hainbat errealitate biltzen dituen kolektiboa da LGTBIQ+. Euskal Herrian LGTBIQ+ mugimenduak izan duen bilakaera ezagutaraztea da bideo honen helburua: 70eko hamarkadatik gaur egunera arteko mugarri garrantzitsuenak ezagutzea; Francisen hilketak, besteak beste. Horretarako, hainbat aditu elkarrizketatu ditugu. Genero-nortasunarekiko eta orientazio afektibo-sexualaren aukerarekiko errespetua sustatuko dugu, heteroaraua zalantzan jarri, eta bide batez kolektibo horrekin lotutako gizarte-estereotipoak eta diskriminazio-egoerak jorratu. Enpatia lantzeko jarduerak ere proposatzen ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: LGTBIQ+ kolektiboa, diskriminazioa, berdintasuna, gizarte-eredua, lesbiana, gay, homosexualitatea, heterosexualitatea, bisexuala, transexuala, transgeneroa.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Historia hurbila ezagutzeko irrika izatea.
 - Nortasun sexualarekiko eta orientazio afektibo-sexualarekiko errespetua erakustea.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea.
 - Diskriminazio guztiekin kritiko agertzea.
 - Homofobiaren eta transfobiaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.
 - Inguruan dugun aniztasuna ezagutu eta baloratzeko nahia izatea.

Aniztasuna eta integrazioa (Aniztasuna)

Sarritan ez gara inguruan dugun aniztasunaz jabetzen. Ez dugu elkar ezagutzeko ahalegin handirik egiten. Kanpoan exotikoa eta erakargarria dena bertan arrotz eta arriskutsu begitandu daiteke. Aniztasuna aberastasun moduan ikusten al dugu? Integrazioa erraza al da Euskal Herrian? Ez da hain erraza, aurreiritzi asko ditugulako. Aniztasunari buruz hausnartzea da bideo honen helburua, Euskal Herrian bizi diren hainbat kulturatako herritarren testigantzen bidez. Kulturazintasuna eta eleaniztasuna ezagutu eta baloratzea, eta gure jarrerak aztertu eta auzitan jartzea.



- Lantzen diren kontzeptuak: aniztasuna, kulturartekotasuna, arrazakeria, elkarbizitza, diskriminazioa, berdintasuna, erlijioak, integrazioa
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzeko irrika izatea
 - Arraza eta bizimodu desberdinekiko errespetua erakustea
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Diskriminazio guztiekin kritiko agertzea
 - Arrazakeriaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

NOIZ ETA NOLA ERABILI

• *NOIZ erabili:*

Balio etikoak irakasgaia ematean erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko 3. mailan. Irakasleak erabakiko du noiz erabili eta jarduera bakoitzari zenbat denbora eskaini.

• *NOLA erabili:*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <https://ikasgelan.ahotsak.eus/>atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera. Asko dira bideo-fitxak, gero eta gehiago. Horregatik, bost ataletan banatuta dagoen bilaketa-sistema bat garatu dugu, bakoitzak interesatzen zaiona errazago aurkitu dezan:

- Motak
- Mailak
- Gaiak
- Ikasgaiak
- Proiektuak

Erabiltzaileak, bere interesen arabera, laukitxoetan (bakarrean edo nahi bestetan) klik egiteko aukera dauka. Adibidez:

- “EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” (proiektua)
- Balio etikoak (ikasgaia)
- Genero berdintasuna (gaia)

-Motak. Bi motatako bideo-fitxak daude: 1. Fitxa didaktikoak; 2. Kantak eta jolasak. Ikasmaterialekoak fitxa didaktikoak dira.

-Proiektuak. Hainbat proiektutarako prestatutako bideo-fitxak ditugu. “EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua aukeratuz gero, proiektu horretarako prestatu ditugun lanketa-proposamen guztiak agertuko zaizkigu.

-Ikasgaiak. Ikasgaien zerrendan, nahi duena aukera dezake irakasleak. Adibidez, “Balio etikoak” en klik eginez gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio.

-Gaiak. Gaien zerrendan, gai bat aukera dezake irakasleak. “Genero berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio.



-Mailak. Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere badauka irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa orearen emaitza ikus-entzunezko bat izaten da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria... Adibiderako, ikus fitxa hau: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan une oro. Ikasmateriala erabilita sortutako ekoizpenak partekatzeko aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa

Gure fitxa didaktikoak ez dira Sekuentzia Didaktikoak, baina Sekuentzia Didaktikoen izaera eta metodologia kontuan hartuta prestatzen ditugu (Dolz & Schneuwly 1997); horrenbestez, SDak sortzeko bidea ematen dute. Sekuentzia Didaktikoak helburu konkretu eta erreal bati erantzuteko jarduera-multzoak dira. Guk bideoekin lotutako jarduerak proposatzen ditugu eta baita helburu konkretuak ere (ahozko ekoizpenak batik bat, hainbat bitarteko erabiliz eta azken helburuetarako hainbat euskarri erabiliz); eta ebaluazio-irizpideak ere bai. Bidenabar, materiala eta ikaste-prozesua esanguratsuak izatea bermatuko dugu. Irakaslearen esku dago jarduera horiek harikaldtu, gaian sakondu eta egokia iruditzen zaion ekoizpen erreal batekin amaitzea. Gure proposamen didaktikoak irekiak dira, eta irakasleak nahi bezala molda ditzake.

Landuko diren jarduerak egitura kooperatiboak erabiliz gauzatzea proposatzen dugu (Kagan 1999). Ikasten ari diren berdinaren arteko interakzioa sustatzen da, benetako ideien trukea eta eztabaida. Adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatuko dira, talde-lanean. Ikasketa kooperatiboaren printzipioak:

- Elkardependentzia positiboa.
- Aurrez aurreko interakzioa.
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako zortzi bideo dira. DBHko 3. mailan *Balio etikoak* irakasgaian lantzen diren edukiei erreparatuta osatutako ikus-entzunezko multzoa. Bideo horiek bereziki Ahotsak.eus dute oinarrian; adin ezberdinetako herritarren testigantzak.

Bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira. Bestalde, fitxa pedagogikoa informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak, argazkiak...

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz fitxako atalak:

A. “Proposamen Pedagogikoa” atala:

Ikasleek garatu beharreko oinarrizko gaitasunekin lotuta daude proposamen pedagogikoak. Ikasleen autonomia, sormena, ikerketa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko estrategiak bultzatuko dituzte. Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin, hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, [Dena aprobetxatzen zen](#) fitxan hauek datoz:

- *Garapen jasangarriaren aldeko joera*
- *Ondasun komunak errespetatu eta zaintzeko ohitura*
- *Aniztasuna aintzat hartzeko eta era positiboan baloratzeko gogoia*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa*

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta [hiru alditan](#) banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:

- Aurre-ezagutzak aktibatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu

- Iragina eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak)
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin (talde-dinamikak).

4. Azken ekoizpena: hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamaika azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

"Testigantza bila". Ahotsak.eus webgunean eta oro har sarean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

"Zu zeu elkarriketatzaile". Ikasleek elkarriketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

"Hitzen arrastoan". Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

"Gaur egunera begira". Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

"Historia egiten". Ikerketa eginez, historiara begiratu, eta gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.

"Mundu zabalean". Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

"Eman iritzia". Gai horri buruz hausnartzea, nork bere iritzia eraikitzeko.

"Ika-mika". Nork bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritzia ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

"Bestearen azalean". Besteen azalean jartzea eta egoerak asmatzea, rol-jokoen bidez enpatia lantzeko.

"Sormena lagun". Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak, artearen bidetik (ilustrazioa, komikia...) eta *brainstorming* edo ideia ekaitzak eta lehiaketak sustatuz.

"Jolasten". Jolasa erabiliko da, eskulanak batez ere, jolastuz ikasteko.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkotasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, euren lanaren emaitza gelakideei ezagutarazteko (azalpena, antzezlan, eztabaida, ozen irakurtzea...). Jarduerak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoiez jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.
- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jarriko ditugu, [Ahotsak ikasgelan](#) webguneko bideo-fitxetan, irakasleak ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak. Grabazioak ikusi ondoren egin daiteke ebaluazioa. Hona hemen adibide bat, "[Santa aqeda eskoriatzan: nesken parte-hartzea](#)" bideoarekin lotutakoa

Hauek izango lirateke gaiarekin lotutako ebaluazio-irizpide orokorrak, kasuan-kasuan moldatu beharrekoak:

Ikasleen autoebaluazioa. Ikasle bakoitzak zertan ikasi duen, zer ikasi duen eta talde gisa zer ikasi duen zehaztu beharko du. Ikasleek euren autoebaluazioa egiteko, egin ditzakegun galderak:

Edukari buruz

- Ea gaiak interesa piztu dion.
- Ea gaiari buruz ikasi izanaren sentsazioa duen: gutxi-zerbait-dezente-asko.

Ikaste-prozesuari buruz

- Ea bideoa eta testigantzak baliagarriak gertatu zaizkion.
- Ea ikaste-prozesua gustukoa eta eraginkorra izan den berarentzat.
- Ea informazioa bilatzeko arazorik izan duen edo erraza gertatu zaion.

- Ea guztira informazio berri asko jaso duen eta hausnartzeko balio izan dion.

Bere komunikaziorako gaitasunei buruz

- Ea iritzia lasaitasunez emateko aukera izan duen ala zailtasunak izan dituen.
- Ea ahozko ekoizpenean lasai sentitu den eta nahi zuena azaltzeko gai izan den.
- Ea pozik dagoen ekoiztako lanarekin.

Talde-lanari buruz

- Ea talde-lanean eroso sentitu den eta aberasgarria gertatu zaion.
- Ea balioesten duen talde-dinamika ala arazoren bat izan duen.

Irakaslearen ebaluazioa. Irakasleak ikasleak ebaluatzeko, kontuan hartu ditzakeen irizpideetako batzuk:

- Ea bideoetako testigantzen garrantziaz jabetu den eta interesa erakutsi duen.
- Ea lehenaldia eta orainaldia lotzeko eta bere ikuspegia aberasteko gogoia eta gaitasuna izan dituen.
- Ea enpatiarik erakutsi duen bideoko pertsonekin.
- Ea etika eta morala bereizten dituen, eta hausnarketa etikoaren garrantzia balioesten duen.
- Ea etika, politika eta justizia kontzeptuen arteko erlazioak ezagutzen dituen, eta termino horiek aztertzen eta definitzen dituen.
- Ea diskurtso sozial eta politiko bat lantzen duen, ongi oinarritua, kritikoa eta gizarte demokratikoaren balioekin konprometitua.
- Ea feminismoaren historia eta historian zehar eskuratutako lorpenak ezagutzen dituen.
- Ea arrazoiak ematen dituen emakumeen eskubideen arazoaren jatorri historikoaren inguruan, eta genero-indarkeria eta -desberdintasuna eragin duten eredu ekonomiko eta soziokulturalak bereizten dituen.

- Ea emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasunaren aldeko jarrera argiak adierazten dituen, haien orientazio afektibo-sexuala edozein izanik ere.
- Ea hainbat eremutan (publizitatea, informazioa, txistek, eskola eta abar) emakumeari edo LGTBIQ+ kolektiboari buruz ageri diren gizarte-estereotipoak biltzen eta aztertzen dituen.
- Ea homofobiari, transfobiari, sexu-diskriminazioari, arrazakeriari eta xenofobiari lotutako jarrera eta jokabideak gaitzesten dituen.
- Ea emakumea edo LGTBIQ+ kolektiboko kideak diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzen dituen.
- Ea kultura-elementuen (estereotipoak, rolak...) eta emakumeen edo LGTBIQ+ kolektiboaren diskriminazioaren arteko lotura azaltzen duen.
- Ea sexu-diskriminazioaren eta indarkeriaren aurkako jardunak proposatzen dituen.
- Ea LGTBIQ+ kolektiboari buruzko informazioa bildu duen eta haien aldarrikapenak barneratu dituen.
- Ea ikaskideekin eztabaidatuz gogoeta egin duen LGTBIQ+ kolektiboaren egoeraren inguruan eta eskolan zein gizartean duen ikusgaitasunaren inguruan.
- Ea LGTBIQ+ kolektiboa gutxiatea, diskriminatzea eta/edo haren aurkako indarkeria sustatu eta justifikatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak gaitzesten dituen.
- Ea Emakunde erakundearen, Berdindu zerbitzuaren eta berdintasuna sustatzeko beste erakundeen ezaugarriak, funtzioak eta programak ezagutzen dituen.
- Ea giza eskubideen urraketak saihesteko eta giza eskubideak bete daitezela ahalbidetzeko mekanismoak proposatzen dituen.
- Ea Ciberbullyngaren eta sarearen bidezko jazarpenen arrisku eta ondorioak aztertzen eta balioesten dituen, zuhur jokatzuz Internetek eta baliabide elektronikoen bidezko komunikazioak ekar ditzaketen arriskuei dagokienez.
- Ea ikerketan informazioa lortzeko gaitasuna erakutsi duen, iturriak bilatzeko orduan.

- Ea informazio hori bere gogoetak eta ikuspuntua egituratzeko edo eraldatzeko erabili duen.
- Ea talde-lanean ondo moldatu den, berdinen arteko harremanean iradokizunak eginez eta ikaskideen iritziak errespetatuz.
- Ea taldean dilema moralei buruz eztabaidatzen duen, eta bere jarrera zein zergatia adierazten dituen.
- Ea bere iritziak eta hausnarketak partekatu dituen, horretarako txanda errespetatuta, eta besteen iritziak errespetatzen dituen.
- Ea bere espiritu ekintzailea eta ekimen pertsonala baliatzen dituen aurkezpen bat egiteko, baliabide informatikoen eta taldekideen laguntzarekin.
- Ea aztertutako gaiari buruz atera dituen ondorioak azaltzen dituen, argudio egokiak emanaz eta argudio horiek ongi antolatuz, arrazoibideari jarraiki.
- Ea ahozko ekoizpean ondo moldatu den, komunikatzeko gai den.

B. Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:


- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaian kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: Ahotsak.eus webgunekoak, Ikasgelan webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.
- **Argazkiak.** Ikasmaterialeko proposamenek hala eskatzen dutenean, argazkiak ere jartzen ditugu fitxetan. Adibiderako, ikus [Bertsolaritzaren garapena](#) fitxa.



PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

1. *Gaia*: Emakume trikitilariak. Historia

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakume-trikitilariak>



The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website. The main heading is 'Emakume trikitilariak'. Below it, there is a short text paragraph: 'Garai batean ez zen emakume trikitilaririk ikusten plazetan. Ateratzen zirenek fama txarra hartzen zuten. Bideo honetan zenbait panderojole eta soinu-jole aipatzen dira: Maurizia Aldeiturriaga, Primi Erostarbe, Juliana Zubizarreta, Ramoni Pikabea eta Romualda Zuloaga.'

Below the text is a video player showing a woman speaking. To the right of the video player is a sidebar with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaiak:** Genero-berdintasuna, Ahalgaitasuna
- 0** puntu 5 izarreko maximotoik
- 0** iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa trikitilariet buruz dela esanda:

- Gustatzen al zaizue trikitia?
- Ba al dago gelan trikitia edo panderoa jotzen duenik?
- Zenbat emakume trikitilari ezagutzen dituzue? Zerrendatu.
- Ezagutzen al duzue garai bateko soinu-jotzailerik eta pandero-jotzailerik?
- Ba al dakizue nor zen Maurizia Aldeiturriaga? Eta Primi Erostarbe? XX. mendearen hasieran gaizki ikusita zegoen emakumeek espazio publikoa hartzea. Ez ziren plazetan eta oholtzetan ibiltzen. Zergatik izan daiteke?

Bideoan agertuko diren hiru emakume musikariei buruzko informazio pixka bat eman dezakegu eta argazkiren bat erakutsi: Maixa Lizarribar trikitilaria, Ainara Ortega jazz abeslaria, Miren Aranguren rock abeslaria eta Elizagoien ahizpak. Iratxe Retolazak emakume musikariei buruzko ikerketa bat egin duela ere aipatu daiteke.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *amatxi* (amona).

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ezagutzen al zenituzten bideoan aipatu diren emakumeak?
- Ezagutzen al zenuten "Aupa Maurixia" aldarria?
- Zer iruditzen zaizue plazara ateratzen ziren emakume musikariak "fulana" eta "comehombres" moduan hartzea?
- Animatzen ziren emakume ia guztiek gizonezko baten babesarekin egiten zuten: senarra, aita, anaia... Adibidez, Ramoni Pikabeak soinua jotzeari utzi zion, bere aita hil zenean. Nolakoa zen emakumearen egoera sasoi hartan?
- Etxeetan, ordea, asko ziren panderoa edo soinua jotzen zuten emakumeak. Zuen familian ba al dago musika tresnaren bat jotzen duen emakumerik?
- Saiatu Primi Erostarberen irrintzia imitatzen. Ea norbaitek lortzen duen!

Ikerlari batzuen arabera, lehen pandero-jotzaileak emakumeak izan ziren. Kopla kantariak ziren. Dantzarako koplak, erromeriakoak, kantatzen zituzten. Pandero soilez aritzen ziren kantuan hasieran, eta gerora alboka, dultzaina, biolina, soinua nahiz beste perkusioren bat ere erabili izan da. Eta ba omen zen ohitura bitxirik ere: emakume pandero-jotzaile horietako batzuek senargaiaren irudia marrazten ei zuten panderoan.

TRIKIPEDIA

Trikipediak hala dakar: "Autore zaharrek zioskuten trikitia, hasieran, pandero hutsarekin kantatzen eta dantzatzen zela, eta emakumeek erabiltzen zutela. Pandero-jotzailea, bestalde, kantaria izan dugu beti. Esku-soinua azaldu baino lehenagoko bikoteetan, garrantzi berezia zeukan emakume pandero-jotzaileak, bera zen kantaria. Eta laguna bertsolaria zuen kasuan ere, ez zen isilik egongo: Segurako Itsuak (Joakin Luzuriaga, 1824an jaioa, gitarra-jotzailea) andreak eta biek kantatzeko bertsoak egiten zituen, elkarri jarritakoak".

Garai bateko emakume bertsolariei buruzko bideoa ere ikus daiteke. XX. mende hasierarako gehienak plazatik erretiratuta baldin bazeuden ere, aurretik badirudi oso ohikoa zela emakumeak bertsotan aritzea: Emakumeak bertsolaritzan (XV-XIX).

3. Maurizia Aldeiturriaga bere kabuz hasi zen panderoa jotzen, herriko plazan, 12 urte zituela. Bideoan aipatutako emakumeak hobeto ezagutzeko, haien biografia laburrak osa ditzakegu: Maurizia Aldeiturriaga, Primi Erostarbe, Juliana Zubizarreta, Ramoni Pikabea eta Romualda Zuloaga.

Ramoni Pikabeari buruzko informazio gutxi dago sarean. Ion Elustondok helarazi diguna:

"1917an jaioa, umetatik Oiartzungo Portugal baserrian bizi izandakoa. Sagardotegia zuten eta lehengusuak soinua jotzera joan ohi ziren hara. Haiei begira ikasi zuen 6-7 urterako, amak zozketa batean irabazitako trikitiarekin. Lagunekin jo eta aldi berean dantza egiteko ohitura hartu zuen. Ezkondu ostean ere halaxe jarraitu zuen. Hori bai, aita hil zenean, jotzeari utzi zion eta ez zuen soinua hartu 50 bat urtean. Herriko soinu-jotzaileei omenaldi bat egin zieten arte: orduantxe hartu zuen berriz. 1913an hil zen, 96 urterekin".



Ramoni Pikabea senarrarekin eta aitarekin.
I.Elustondok utzitako argazkia.

Juan Mari Beltranek bere izeba Frantziska ere aipatzen du bideoan. Hona hemen Beltranek berak hari buruz kontatutakoa:



Frantziska Argiñena.
J.M. Beltranek utzitako argazkia.

"Frantziska Argiñena Elberdin. 1903. urtean jaioa, Alliko Argañean. Allin igandero neska-mutilen dantzaldia edo gazteen bilera egiten zen mezaren ondoren. Noski, ez zuten musika joko zuen soinu-jotzailerik edo danbolin-jotzailerik izango, eta Alliko jaietako dantzaldi horietan musika nire izeba Frantziskak jotzen zuen. Bere pandereta edo panderoa hartuta han aritzen zen kantatzen eta panderoa jotzen besteek dantza egin zezaten. Nire ama zenak esaten zuenez, saio horiek ez ziren herriko apaizaren gustukoak izaten eta "panderetera ofizio" hori betetzeagatik herriko apaizak ez omen zuen Frantziska begi onez ikusten. 20 urte zituela hil zen, bere seme Meliton jaiotzerakoan, umea izan eta zortzi egunetara".

Juan Mari Beltranen *Euskal Herriko soinu tresnak* dokumentala ere interesgarria da, musika tresnak ezagutzeko ez ezik baita plaza gizonezkoen mundua zela jabetzeko ere (bideoan Maurizia Aldeiturriaga da agertzen den emakume bakarretako bat).

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
 - *"Historia egiten"*. Emakume trikitilariak ikertzen jarraitzea da proposamena. Bideoan aipatutako emakumeak ez dira bakarrak. Zerrenda honetan izen gehiago batu ditugu:

- Antonia Aranzeta, lurreta (*disko batean* parte hartu zuen, 1920ko hamarkadan)
- Juliana Esnaola *Muxillo* 1892-1974, Elgoibar (*Gelatxo* trikitilariaren emaztea)
- Pantxike Zubizarreta *Markonesia*, Elgoibar
- Felisa Bermeosolo 1899-, Ereño
- Eulali Gandiaga 1900-, lurreta
- Juanita Bermeosolo 1903-, Ereño
- Frantziska Argiñena 1903-1923, Alli
- Maurizia Aldeiturriaga 1904-1988, Zeberio
- Primi Erostarbe 1907-1995, Araotz (Oñati)
- Kastora Irigoien 1908-1994, Lezama
- Juliana Zubizarreta 1910-2006, Elgoibar
- Martzelina Zubizarreta, Elgoibar (Julianaren ahizpa, Zestoara ezkondua)
- Juanita Gorroño 1913-, Ibarri (Muxika)
- Romualda Zuloaga 1913-1971, Galdakao
- Felisa Arribalzaga 1922-2015, Muxika
- Antonita Beristain 1936-2020, Azkoitia
- Maria Jesus Sarrionandia 1909-2002, Zornotza (Xabier Amurizaren ama)



Martzelina Zubizarreta 1981ean, Zestoan.



Proposamena: sasoi bateko emakume trikitilarien ahalik eta argazki zein informazio gehien lortu, eta guztien izenekin eta argazkiekin lanketak egitea.



Erronketako bat: izen berriak lortuta, zerrenda luzatu eta osatzea.

Laguntza pixka bat: ikus Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen webgunean [pandero-jotzaileen zerrenda](#) eta [bikoteen zerrenda](#); bertan argazki batzuk ere badatoz. Ion Elustondo ere lan handia egiten ari da emakume hauek bistartzeko, eta haiei buruzko informazioa eta argazkiak ipintzen ditu bere Facebook-eko orrian. Hona hemen [Maria Jesus Sarrionandia](#) (Xabier Amuriza bertsolariaren ama; amonak eta [izebak](#) ere panderoa jotzen zuten) bere senarrarekin agertzen den [argazkia](#) eta beste batzuk: [Martzelina Zubizarreta](#), [Juliana Zubizarreta](#), [Felisa Arribalzaga](#), [Kastora Iriqoien](#) (haren bideoa ere badago sarean), [Antonita Beristain](#)... Antzinako argazkiak ere erabil daitezke, panderoa edo soinua jotzen agertzen diren emakume ezezagunenak.

Trikigiro Elkartekoak ere lan handia egiten ari dira Urola bailaran. Haiekin harremanetan jartzea da aukera bat. Euskal Herriko Trikitixa Elkartek argitaratutako *Zuriak eta beltzak jotakoak* liburua ere kontsulta daiteke, besteak beste.

2-3 laguneko talde txikitik egin daiteke jarduera hau. Taldetxo batzuk argazkiak bilatzeaz arduratu daitezke eta beste batzuk informazioa eskuratzeaz. Posible da lortutako informazio guztia on-line bateratzea.


Ondoren, lanak banatuko dituzte berriro: taldetxo batzuk horma-irudiez arduratuko dira (argazkiez gainera, marrazkiak, collagea... nahi duten teknika erabil dezakete) eta beste batzuk biografiak txukuntzeaz (adibidez, talde batek 3-4 trikitilari). Posible da bideoak egitea ere, emakume trikitilarien argazkiak eta bideoak erabilia (ikus, adibidez, Mauriziari buruzko [bideo hau](#)).



Maurizia Aldeiturriaga. Iturria: [Wikimedia](#)

Taldetxo bakoitzak egindako lana aurkeztuko du.

- *"Sormena lagun"*. Koplak sortuko ditugu. Trikiti doinuak eta koplak eskutik helduta joan ohi dira. Koplak normalean laburrak izaten dira, bi puntukoak. Kopla txiki baten adibidea (herrikoia):



Koplak sortuko ditugu, gustuko doinuren bat aukeratu ostean (hemen adibide batzuk: Ezaqutzen ez baqaitu, Leku izenak asmatzen, Parrandako kontuak, Puntuka librean, Euskaldun berria eta zaharra... gehiago hemen).

Posible da kopla zaharren bertsoak egitea eta baita kopla edo bertso berriak hutsetik sortzea ere. Adibidez, Chill Mafiak Gazte arruntaren koplak bertsoa egin zuen Xabier Leteren Gizon arruntaren koplak oinarri moduan hartuta (kasu horretan ez dira kopla laburrak, lau puntukoak dira).

Gai librean sortuko dituzte koplak. Binaka egin daiteke, gero kantatzeko joko handiagoa ematen duelako. Aupa Maurizia! Aukera bat: koplak bideoan edo audioan grabatzea, gero berriro entzun eta ikusi ahal izateko.



Gazteak bertsoak sortzen, *Gazte sortegiak* egitasmoan. Iturria: Oihaneder

- *"Gaur egunera begira"*. Gaur egungo emakume trikitilarien lanak ere ezagutu ditzakegu, eta orain musikagintzan emakumeak duen lekuaren inguruko iritzi-trukea sustatu.

Horretarako, lehenengo interesgarria izango litzateke trikitiaren bilakaera zein izan den jakitea. Aipatzekoa da 1970ean lehen Trikitixa Txapelketa Nagusia antolatu zela, eta horrek gazte asko trebatzea ekarri zuela. 90eko hamarkadan, berriz, "trikitiaren boom-a" gertatu zen: ikusi [Soinu Txiki 3](#) erreportajearen lehen minutuak. [Trikitixa, baseritik kalera](#) artikulua ere irakur daiteke.

Gaur egun zer? Amak taldearen [Gu bideoklipa](#) osorik ikusi dezakegu (bertan agertzen diren emakume guztiak trikitilariak dira). Trikitilarien abestiak entzun eta aztertu ditzakegu, genero-ikuspegia kontuan izanda. Adibiderako, Huntza taldearen [Zer izan](#) eta [Harro gaude](#), Gosereren [Ezetz](#), Neomak taldearen [Hamen](#), Xabi Solanoren [Erre zenituzten...](#) asko daude.



Neomak taldeko kideak. [Hamen](#) bideoklipeko fotograma bat

Gaur egungo emakume musikariei buruz gehiago jakiteko, [Emakume musikariak](#) bideoa ikustea proposatzen dugu. Halaber, Trikitixa Elkartek emakume trikitilarietarako [bideoa](#) ere ikusgai dago.

Beste bi bideo hauek ere ikus daitezke, beste alor batzuei buruzkoak (proposamen pedagogikoak ere badituzte): *Emakumeak bertsotan* eta *Emakume idazleak*.

Hauxe izango da atal honetarako proposamena. Gela talde txikitan banatuko da eta talde bakoitzak atalean zehar proposatutako jardueretakoren bat egingo du (adibidez, trikitiaren bilakaerari buruzko artikulu/liburu bat irakurri, bideo bat ikusi, abesti bat entzun eta aztertu...). Ondoren, gelakideekin interesgarria iruditzen zaiena partekatuko dute, eta iritzi-trukea sustatu. Beraiek izango dira ikertzaileak eta irakasleak, ikasitakoa nola transmititu erabakiko dutenak.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena edo emanaldia egingo dute ikasleek, euren lanaren emaitzak gelakideei azaltzeko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ahal dela, jarduerak grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoez jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: *ahozkoaren ezaugarriak* eta *baliabideak*.

2. *Gara:* Emakumeak literaturan. Historia

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-literaturan-1>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there are navigation buttons: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Emakumeak literaturan I'. Below the heading, there is a short introductory text: 'Ezagutzen al dituzu euskaraz idazten zuten garai bateko emakumeak? Euskal literaturako bost emakume idazle ezagutuko ditugu (XVII-XIX): Maria Estibaliz Sasiola, Bizenta Mogel, Rosario Artola, Mayi Ariztia eta Katalina Eleizegi.' Below this text is a video player showing a portrait of Bizenta Mogel with the text 'Bizenta Mogel Markina, 1782 - 1854'. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Balio etikoak
Gaiak:	Genero-berdintasuna, literatura
	0 puntu 5 izarreko maximitik
	0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

Euskal literaturaren historiako emakumeei buruz hitz egingo dugu, bideoaren bidez haietako batzuk ezagutuko ditugulako. Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu

- Duela berrehun urte, aukera berdinak al zituzten neskek eta mutilek idazteko? Zergatik?
- Ezagutzen al duzue sasoi bateko emakume idazlerik (literatura unibertsalekoa ere izan daiteke)? Zerrenda osatu.
- Zuen ustez, zer motatako literatura, zeri buruzkoa, idatziko zuten emakumeek?
- Nor izan zen euskaraz idatzi zuen lehen emakumea?
- Ezaguna egiten al zaizue Rosario Artola izena? Eta Bizenta Mogel?
- Emakumezkoak diren zer euskal idazle ezagutzen dituzue? Bota izenak!

Bideoan agertzen direnak: Patri Urkizu, Marijo Olaziregi, Iratxe Retolaza eta Anabel Ugalde ikerlariak eta Yolanda Arrieta idazlea.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritzia partekatu:

- Bideoko bost emakume idazleen ezaugarriak zerrendatu, errepikatzen diren ezaugarriak bereziki (ikasketa-maila, zer idatzi zuten, nolako familia zuten...).
- Familian gizonetzko idazleak izateak lagundu egin al zien emakumeei? Itzala ere egin al zieten ala argia bakarrik? Hausnartu.
- Koldo Mitxelenak "mujer excepcionalmente despejada" bezala deskribatu zuen Bizenta Mogel. Zer esan nahi zuen? Zer pentsamendu egon daiteke ideia horren atzean?
- Bada Maria Estibaliz Sasiolaren egiletza zalantzan jartzen duenik, XVII. mendeko eskuizkribuan bere izena agertzen den arren. Harritzen al zaitu horrek? Gauza bera gertatuko al litzateke, gizonetzkoa balitz?
- Bizenta Mogelek ikasi egin nahi zuela esan zuen, eskatu egin zuen. Erraza izan zela uste al duzue?
- Genero literario guztiak ez daude berdin baloratuta. Adibidez, haur literatura gutxiago baloratu izan da. Zergatik uste duzue haur literatura emakumezko idazleekin lotzen zela? Orain ere hala al da?

Antzerkigintzari keinu bat egin diezaiokegu, hausnarketatxo bat eskaini, bideoan aipatutako idazleetako bat antzerki-testuen egilea izanik:

- Antzerkigintzan, XX. mendearen aurretik, gizonaek egiten zituzten emakumeen rolak toki batzuetan. Zergatik zela uste duzue?
- Antza denez, Antzinako Grezian emakumeek mitoak edo gai herrikoiak bakarrik antzezten zituzten, inoiz ez gai intelektual edo kultoak. Rol horrek noiz arte iraungo zuela uste duzue?

Bideoan azaltzen diren bost emakumeak ez dira euskal literaturan izan diren bakarrik. Bost adibide dira. Izan ere, XIX. mendearen amaieran jaiotako gehiago ere izan ziren, adibidez Emakume Abertzale Batzakoak: Karmele Errazti *Etxakin* (1885-1954), Julene Azpeitia (1888-1980), Tene Mujika (1888-1981), Sorne Unzueta *Utarsus* (1900-2005)...



Emakume Abertzale Batzako zuzendaritzako kideak, 1938an Bartzelonan. Iturria: Sabino Arana Fundazioa

3. **Bideo gehiago.** Emakume idazleei eta euskal literaturari buruzko bideo gehiago ikusi daitezke, informazioa osatzeko. Euskal literaturako emakumeei buruz lanketa sakonagoa egin nahi izanez gero, adibidez, gaur egungo emakume idazleen iritziak batzen dituen bideoa ikusi eta komentatu daiteke (proposamen pedagogikoak ere baditu): [Idazlea emakumea denean](#). Interesgarria da Marijo Olaziregiren testigantza hau ere: [Emakume idazleak ikusezin](#).

Euskal literaturari buruzko beste bi bideo hauek ere ikusteko eta lantzeko modukoak dira, nahiz eta ez duten genero-ikuspegia jorratzen:

- [Literatura modernoaren hastapenak](#)
- [Literatura: 70eko hamarkada](#)

Ahozko literaturari dagokionez, historiako emakume bertsolariei buruzko bideoa ere baliagarria gerta daiteke, duela mende batzuk emakumearen rolak nolakoak izan zitezkeen irudikatzen: [Emakumeak bertsolaritzan \(XV-XIX\)](#).

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Bestearen azalean"*. Literaturaren historian emakumeek izan zitzaizkuten zailtasunak irudikatzea eta aztertzea da proposamen honen helburua. Garai hartako emakume baten paperean sartzea, eta **eguneroko bat idaztea** da proposamena.

Horretarako, talde txikitan banatuta, bideoan agertzen diren emakumeei buruzko informazio gehiago aurkitu dezakete ikasleek. Talde bakoitzak emakume bat aukeratu dezake (posible da bideoan agertzen ez den emakume bat aukeratzea ere, garaikidea).



Izan al zuten seme-alabarik? Ezkondu al ziren?

Zer esan da haiei buruz? Informaziorik ba al

dago? Eta haien familiako gizon idazleei buruz?

Argazkiak bilatu.

Irudian, Rosario Artola



Ondoren, bakarkako lana etorriko da. Idazle bat aukeratu, eta haren testuingurua kontuan hartuta, ikasleak eguneroko bat idatziko du honakoak azalduz: bere eguneroko bizitza nolakoa zen, zer lan egiten zituen, ikasteko zailtasunak, emakumea izateagatik zituen betebeharrak, lanak argitaratzeko orduan izan zituen arazoak... Adibidez, Bizenta Mogelek espresuki eskatu behar izan zuen berari ikasketak emateko. Familiarekin izan zuen elkarrizketa nolakoa izango zen? Zein argudio erabiliko zituen?



Iturria: [Wikimedia Commons](#)

Egunerokoa idazteko 2 irizpide:

- Luzera: gutxienez orrialde bat
- 1. pertsonan egongo da idatzita (idazlea ni izango banintz bezala)

Idatzitako **egunerokoa ozen irakurriko dute** ikaskideen aurrean, egindako lana partekatuzko. Ozen irakurtzeko, garrantzitsua da hitzezkoak ez diren baliabideak ezagutzea edo gogoraraztea (erritmoa, isiluneak, tonua, bolumena...). Horretarako, Pako Eizagirrenen azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan ([Aittu.eus](#) webgunearen sortzailea da): [Testua ezaqutu eta barneratu](#) (00:30-01:40). Bideo honen bigarren zatian ere ozen irakurtzeari buruz dihardute: ['Idazketa tailer baterako aholkuak](#) (10:30 minututik aurrera).

Guztiak irakurri ondoren, komentatzeko tarte bat ireki daiteke: egunerokoen antzekotasunak identifikatu, sinesgarritasunaz hitz egin, testuak irakurtzeko moduak aipatu...

- *"Gaur egunera begira"*. Garai batean, emakume idazleak oso lotuta zeuden haur literaturari, ipuinei, alegiei... izan ere, umeen zaintza eta heziketa emakumeen betebeharren artean zegoen. Maistra izatea zen emakumeen lanbideetako bat, eta haurrei zuzendutako ipuinak idaztea, berriz, bazterreko genero moduan zegoen ikusita. Gaur egun halakorik gertatzen ote den aztertuko dugu, ea literatura-generoetako portzentajeetan aldaketarik sumatzen den, idazlea emakumezkoa ala gizonezkoa izan.

Iturria: [Literary](#)

Herriko liburutegira joan, eta euskarazko liburuen analisi bat egitea da proposamena. Adibidez, nobedadeen artean egin daiteke azterketa edo urte zehatz bateko uzta aztertu: 2023koa, 2022koa... Literatura-genero bakoitzean zenbat dira emakumeek idatzitako lanak? Eta gizonezkoenak? Konparazio behar bezala egiteko, ehunekoak ateratzea ere komeni da (adibidez, eleberrietan % 35 emakumezkoa eta haur literaturan % 55).

- Eleberriak
- Narrazioak, ipuinak
- Haur eta gazte literatura
- Beste batzuk (antzerkia, saiakera...)

Internetez ere egin daiteke, herri batzuetako liburutegietako webguneek nobedadeak sareratzen dituztelako. Adibidez, [Eibarko Liburutegiak](#), [Arrasateko Bibliotekak](#), [Hernaniko Liburutegiak](#) eta [Berrizko Liburutegiak](#) webgunean atal bereziak dituzte, euren nobedadeak ezagutarazteko.

Taldeka, **collage bat egitea proposatzen da**. Idazleen argazkiak, liburuen azalak, genero literario ezberdinak irudikatzen dituzten marrazkiak, koloreak, esaldiak... erabiliko dituzte. Ondoren, aurkezpen txiki bat egingo dute hausnartu dutenarekin. Collageak ikastetxean zintzilikatu daitezke.

- *"Eman iritzia"*. Historian zehar asko eta asko izan dira, argitaratu ahal izateko, gizonezkoen izenak erabili izan dituzten emakume idazleak; senarraren izena erabiltzen zutenak ere bazeuden. Hori bai, 2021ean alderantzizko kasu bat gertatu zen: hiru gizonezko emakume baten izena erabili zuten. Iritzi-trukea egingo dugu gai honen inguruan.

George Sand (Amanantine-Aurore-Lucile Dupin). Iturria: [Wikipedia](#)

2021ean Planeta Saria irabazi zuen Carmen Mola idazleak. Saria jasotzeko orduan, ordea, hiru gizonezko agertu ziren eta haiek jaso zuten saria. Ordura arte, inork ez zuen fisikoki benetako Carmen Mola ezagutzen, eta orduan jakin zen emakumezko baten izenaren atzean hiru gizon zeudela. Saria jaso ondoren, hiru gizonek esan zuten euren burua ezagutzera emateko unearen zain zeudela: *“Salto bat eman nahi genuen eta jauzi handi batez ezagutzera eman”*. Horrek zeresan handia sortu zuen, bai literaturaren munduan eta baita sare sozialetan ere. Emakumezkoek idatzitako liburuak saltzen dituen Madrilgo liburu-denda batean, berria jakin eta ordu gutxitara Carmen Molaren liburu guztiak erretiratu zituzten, honako txio honekin batera:



Mujeres & Compañía
@LibreFeminista

Nuestra aportación al jastag Carmen Mola, pero Mola más que los señores no lo ocupen todo.

[#CarmenMola](#)

Iturria: Twitter

Horrelako edo antzeko txio asko daude. Adibidez, Tània Verge Berdintasuneko kontseilariak hiru idazleek *“hutsalkeriaz”* jokatu zutela kritikatu zuen eta adierazi zuen ez zutela inolako beharrik emakumezko baten izenaren atzean ezkutatzeko, *“ez dutelako inolako diskriminaziorik jasaten”*.



Planeta Sariak 70 sari eman ditu, horietako 13 emakumezkoek (Carmen Mola kontuan hartuta).



Zer iruditzen zaizue hiru gizon hauek egin zutena? Beharrezkoa zela uste al duzue? Zergatik egingo zuten? Fama lortzeko agian? Polemika sortzeko?

Gaiari buruz gehiago sakontzea proposatzen dugu: gizonezkoen ezizenak erabili zituzten emakume batzuei buruzko informazioa lortzea, aipatutako kasu honi buruzko informazio gehiago lortzea... eta egunkari batean argitaratzeko moduko iritzi-artikulu bana idaztea.

Iritzi-artikuluak idazteko, adibide batzuk ikus ditzakegu ("Iritzi-artikuluen ereduak" dokumentua). Kontuan hartu:

- **Hartzailea.** Ez dakigu hartzailearen ikuspegia zein izango den, artikulua publiko orokorrak irakur dezakeelako.
- **Ikuspegi kontrajarriak.** Gure ikuspegia argudio sorta baten bidez justifikatu behar dugu, baina kontrako argudio posibleak ere kontuan izanda (eta komeni bada, horiek ere artikuluan aipatuta).
- **Egitura.** Artikuluaren egitura inportantea da: argudioek eta azalpenek ondo lotuta egon behar dute. Hurrenkera inportantea da. Hasiera eta bukaera zaintzea komeni da (azken esaldiak/paragrafoak ideia nagusia laburbil dezake).
- **Testu-antolatzaileak.** Azalpenak eta argudioak lotzeko, testu-antolatzaile egokiak erabiltzea eta testuari aberastasuna ematea komeni da.


Ondoren, iritzi-artikuluak gelakideen aurrean irakurri, eta iritzi-trukea egin daiteke.

- *"Historia egiten".* Proposamena: emakumezko idazle bat aukeratu, eta hari buruzko informazioa batzea, aurkezpen txiki bat prestatzeko. Banaka edo binaka egin daiteke.


Hona hemen informazio-bilketarako eta aurkezpenerako puntu posible batzuk:

- Argazkia
- Biografia laburra: jaiotza-data, bizilekua, bizitzako oinarrizko datuak
- Zer idatzi zuen? Zergatik da ezaguna?
- Zergatik aukeratu dut?
- Haren testu zatitxo bat edo esan bat (ikusi [hemen](#) euskarara itzulita dauden literatura unibertsaleko lanak)

Aukeratutako idazlea edozein garaitakoa eta lekutakoa izan daiteke. Literatura unibertsaleko emakume batzuen adibideak:




Aurkezpena *Prezzi* edo antzeko baliabideren bat erabilita egin daiteke.



- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena edo irakurketa egingo dute ikasleek, euren lanaren emaitzak gelakideekin partekatzeko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ahal dela, jarduerak grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoiez jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.

3. *Gaia*: Emakume antzezleak. Gaur egun

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakume-antzezleak>



The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The main heading is 'Emakume antzezleak'. Below it, there is a short paragraph in Basque: 'Nola moldatzen dira emakumeak antzerkian, telebistan eta zineman? Aktore eta zuzendari lanetan gizonezkoen baldintza beretan aritzen al dira? Agurtzane Intxaurreaga, Aizpea Goenaga, Bea Egizabal eta Itziar Elias elkarriketatu ditugu bideo honetarako.' Below the text is a video player showing a woman speaking, with a red play button in the center. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaiak:** Genero-berdintasuna, Antzerkia
- 0** puntu 5 izarreko maximotik
- 0** inntzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa euskal aktoreei buruz dela esanda:

- Nor dira zuen gustuko euskal antzezleak? Zerrendatu (ea zenbat gizonezko eta zenbat emakumezko ateratzen diren).
- Zineman, telebistan eta antzerkian gizon eta emakumeen presentzia berdina al da?
- Telebistako hiru saio aipatu. Protagonista nagusia gizonezkoa ala emakumezkoa da?
- Protagonista gizonezkoa denean, zer motatako paperak izaten ditu? Eta emakumeak? Eta bigarren mailako pertsonaiak direnean? (superheroiak, enpresaria, goi-burua / ama, alaba, emaztea, maitalea...)
- Aipatu hiru zinemagile gizonezko eta beste hiru emakumezko.

Bideoa ikusi aurretik, bideoan agertzen diren lau emakumeak aurkeztu ditzakegu, labor-labor.

Bea Egizabal: Lasarte-Oriakoa. Clowna eta ipuin kontalaria. Umorezko bakarrizketa feministak egiten ditu. Formatuko txikiko lanak egiten ditu, areto handietako zirkuitutik kanpo.



Agurtzane Intxaurreaga: Orozkokoa. Aktorea, baina batez ere zuzendaria: Hika antzerki taldeko zuzendaria. Talde handiekin egiten du lan, antzokietan. Euskal Telebistan aktore-zuzendari ere izan zen. Ikus [Wikipedian](#).



Aizpea Goenaga: Donostiarra. Aktorea, antzerki-testu egilea, zuzendaria... denetik egin du, besteak beste filmak zuzendu. Antzerkian ez ezik, telebistan eta zineman ere aritu da. Ikus [Wikipedian](#).



Itziar Elias: Azkoitiarra. Aktorea eta zuzendaria, batez ere antzerkian aritu da. EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko idazkari ohia.



Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu (kontuan izan bideoaren transkripzioa eskuragarri dagoela, Ahotsak Ikasgelan webguneko bideo-fitxako "Testua" atalean). Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ezagutzen al zenituzten bideoko emakumeak?
- Bideoan, Aizpea Goenagak botatzen duen galderari buruz hausnartu: "Mutila bazina zure burua zalantzan jarriko zenuke?". Zinemagintzaz ari bada ere, esaldi hori bizitzako beste egoera batzuetara eramán al daiteke?
- Bideoko emakumeek beti demostratu behar izan dute balio dutela. Zergatik? Gizonezkoen artean gauza bera gertatzen dela uste al duzue? Gelakideen artean gertatzen al da?
- Emakumea eta gorputza beti bat doazela kontatzen dute: emakumea beti lirain, argal, gazte eta makillatuta egon behar dela. Gizonezkoen artean, aldiz, ez da gertatzen. Zergatik uste duzue mantentzen dela jarrera hori?
- Zer da "genero-arrakala" zinemagintzan, telebistan edo antzerkigintzan? Ezagutzen al duzue genero-arrakalaren kontra agertu den profesionalik?
- Zineman edo telebistan paperak lortzeko, emakumeek gizonezkoen gonbidapenak onartu behar izan dituztela kontatzen da bideoan. Zer lekutan uzten du horrek emakumea?

Karanbola hirukoitza liburuan Eneritz Artetxek emakumeak euskal antzerkigintzan duen egoeraz jarduten du. Liburu horretan datozen datuen arabera, gizonezkoek baino emakume gehiagok egiten dituzte antzerki ikasketak, baina gero epe luzera gizonezko gehiago aritzen dira lanbidean. Adibidez, Donostiako TAEn (Arte Eszenikoen Tailerra) 1995etik 2018ra 215 emakume eta 124 gizonezko ibili ziren; Gasteizko TAEn emakumezkoak % 72 izan dira eta gizonezkoak % 28, baina gero eskola horretan bertan emakumezko profesionalak

% 42 eta gizonezkoak % 58. Arrazoietakoa bat amatasuna izan ohi da. Agurtzane Intxaurragaren bideo-pasarte hau ikusi daiteke: "[Amatasuna, lan mundurako oztopo](#)".

Aipatzekoa da antzezpen munduan dagoen mailaketa ere: antzerkia da gutxien baloratzen dena; dirua eta ospea telebistak eta zinemak ematen dute. Era berean, antzerkiaren barruan ere mailaketak daude: antzoki handietako zirkuitua dago (antzerki-programatzaileak, antzerki-kritikariak...) eta areto txiki eta alternatiboak (gaztetxeak, liburutegiak...). Ipuin kontalaritza, adibidez, eremu nahiko feminizatua da, hurrei zuzendutako kontu bezala ikusten delako. Bea Egizabalek eta Agurtzane Intxaurragak egoera zein den azaltzen dute bideo-pasarte hauetan: [Antzerkia, anaia pobrea, Aretoko helduen antzerkia baloratuena](#) eta [Emakumea plaza publikoan](#).

Bideo hauen bidez, oholtza gainean dabiltzan beste emakume batzuetan testigantzak ere ezagutu ditzakegu (gainera, proposamen pedagogikoak ere badituzte):

-[Emakume musikariak](#)

-[Emakumeak bertsoen plazan](#)

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitik. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Historia egiten"*. Ikerketa proposatzen dugu, emakumeek historian zehar antzerkigintzan izan duten papera ezagutzeko, eta informazio-bilketa nahiko zaila dela egiaztatzeko. Bakarka edo talde txikitik egin daiteke eta bakoitzak historiako aro ezberdin bat aukeratu dezake.



Antzerki unibertsalaren historian, mundu mailan oso baloratuak, aitortuak eta hedatuak izan diren gizonezko dramaturgoak agertzen dira. Emakumezko antzerkigileak eta aktoreak, aldiz, baztertu egin dira, ez dira liburuetan jaso izan. Hori dela eta, gaur egun zaila da emakumeek historikoki egindakoa erakusten duten dokumentu-iturriak aurkitzea, antzerkian ez ezik, baita gizarteko beste esparru eta jarduera guztietan ere.

Beraz, generoa da emakumeen bizitzan eragiten duen faktorerik erabakigarriena. Agerian geratzen da emakumeek ere ekoizten dutela, baina generoen arteko botere-harreman asimetrikoek haien lana isilarazi egiten dute.

Bidea errazteko, hona hemen ikertu daitezkeen aro batzuk:


- Emakumeak antzerkigintzan Antzinaroan: emakumearen papera antzerkigintzan Egipton, Grezian eta Erroman.
- Erdi Aroa: emakume juglareak.
- Erdi Aroa: gizonezkoak emakumeen paperak antzezten.
- *Comedie Française* (XVII): Madeleine Bejart eta Marie Champmesle antzerkigileak
- Espainiako Urrezko Aroa (XVI-XVIII. mendeak): Antzerki herrikoia komedia-korraletan. Antzezle famatuak: La Calderona, La Caramba, Rita Luna, María Ladvenant y Quirarte, La Tirana...
- Espainiako Urrezko Aroa (XVI-XVIII. mendeak): Emakumeek sortutako antzerkia: Katalina Eleizegi, Ana Caro Mallen de Soto, Sor Marcela de San Félix...
- Emakumea arabiar antzerkigintzan

Informazioa batu ostean, gaiari buruzko aurkezpen txiki bat prestatuko dute. Amaieran, informazio-bilketari buruz ere hausnartu dezakete denen artean: zer baliabide erabili dituzten, informazio-iturriak lortzeko zailtasunak izan dituzten, zerk erakarri duen euren arreta...

- *"Bestearen azalean"*. Ikasleak antzezle bilakatuko dira, eta beraiek sortutako antzerki-esketx txikiak antzeztuko dituzte. Gaia: emakumezko aktoreak, egoera konplikatuetan.

Bideoan, emakumezko antzezleek gizonezkoek baino askoz ere presio handiagoa dutela aipatzen da: lirain egon behar dute, polit, argal, gazte, makillatuta joan, takoiak erabili... Gainera, paperak lortzeko egin behar dituzten "faboreei" buruz ere hitz egiten da. "Fabore" horiek gizonezkoek eskatutakoak izan ohi dira.

2021ean “Gaztea, arqala eta liraina izan behar duzu... emakumezkoa bazara” artikulua argitaratu zuten Argia aldizkarian, eta bertan euskal komunikabideetako hainbat emakumek jasandako tratua salatzen da. **Me Too** mugimendua (#MeToo, euskaraz: **"Ni ere bai"**), sare sozialetan modu biralean hasitako mugimendua, ere aipagarria da. 2017ko urrian, sexu-erasoak eta sexu-jazarpena salatzeko sortu zen, AEBetako Harvey Weinstein zinema-ekoizle eta exekutiboaren aurkako sexu-abusu salaketen ondorioz.



Iturria: [Wikimedia commons](#)

Bost-sei laguneko taldetan banatu, eta horrelako egoerak erakusten dituzten antzezlan txikiak egitea proposatzen dugu: edertasun kanonekin lotutako egoerak, abusu-egoerak... Taldean gidoia idatzi, eszenografia pentsatu, eta, ondoren, hiru kidek antzeztu dezakete. “Zapalduen antzerkia”ren metodologia erabil daiteke horretarako.

Gutxienez hiru pertsonaia egongo dira:

- a. **Protagonista**: emakumezkoa izango da. Arazo bat izango du, gatazka bat.
- b. **Zapaltzailea**: protagonistaren arazoa sortzen edota elikatzen du.
- c. **Laguntzailea**: protagonistaren "aliatua" izango da.

Adibidez: *Maria da protagonista. Zuzendari arrakastatsu batek afaltzera gonbidatu du, eta joan ala ez erabaki beharko du. Berak pelikularako papel bat lortu nahiko luke, baina ez du gizon hori batera atsegin. Bere pisukide batek gonbidapena onartzeko esaten dio eta besteak, berriz, ezetz.*

Zapalduen antzerkiaren ezaugarrietako bat hau da: lehenengo, antzezlana gaizki bukatzen da beti, eta gero, publikoak lagunduta, beste bukaera bat

bilatzen zaio. Ipini dugun adibidearekin jarraituta: *Mariak zuzendariarekin geratzea erabakiko du, baina oso gaizki sentituko da, etsita, ez delako benetan egin nahiko lukeena.* Ondoren, publikoaren proposamenak kontuan hartuta, antzezleek beste bukaera bat antzeztuko dute: *Mariak ezetz esango dio gonbidapenari, eta ahaldunduta sentituko da.*

Antzezlana egin ondoren, sentipenei buruz hitz egin dezakegu:

- Zer sentitu duzue gidoia prestatzean?
- Zer sentitu duzue antzezle moduan?
- Zer sentitu duzue publiko moduan?



Madrilgo Zapalduen Antzerki Jaialdiko irudi bat. Iturria: Artezblai.com

- *"Sormena lagun"*. Ikasleen irudimena martxan jartzeko garaia da. Abiapuntu moduan film labur bat ikusi ostean, gai horren inguruko podcastak sortuko dituzte.

Leading Lady Parts Erresuma Batuko BBCk estreinatu zuen film laburra da eta telebistaren industriako genero-ezberdintasuna jartzen du agerian. Filmean hainbat antzezle famatu agertzen dira eta interpretazioaren munduan nagusi den sexismoa nabarmentzen dute, casting bat irudikatuz.



'Leading Lady Parts' film laburreko fotograma bat.

Castingeko arduradunek hainbat baldintza jartzen dizkiete antzezleei: argalagoak izatea, makillatuta joatea... Gaur egun zinemaren eta telebistaren munduan nagusitzen jarraitzen duten estereotipo matxista krudelak nabarmentzen ditu, oso modu esajeratuan.

Ikasleei eskatuko zaie arreta ematen dieten egoera guztiak apuntatzen joan daitezela, gero denen artean eztabaidatzeko eta hausnartzeko. Mota honetako galderak ere egin daitezke:



- *Nola sailkatuko zenukete film hau? (Komedia, drama, parodia...)*
- *Zer sentipen sorrarazi dizue? (Barregura, pena, haserrea...)*
- *Castingeko arduradunak bi emakumezko eta gizonezko bat dira; emakumeak dira okerrenak. Berdin funtzionatuko al luke hiru gizonezko balira? Zergatik?*
- *Esajeratuegia da, gordinegia (pentsatu arren, halakoak ez dira aurpegira esaten, politikoki zuzenak izateko)... Sinesgarria al da, ala surrealista (gizon bat hartzea emakume baten rolerako, arduradunetako bat beltza izanda beltzen kontra agertzea...)?*
- *Zer iruditu zaizue bukaera (neskak gezurra esatea, castinga ondo joan zaiola)?*
- *Zein da filmaren helburua? Zuen ustez, lortzen al du helburua?*
- *Zerbait aldatzekotan, zer aldatuko zenukete? Egin proposamenak!*

Talde txikitan banatuta, ikasleek sormena aktibatze aukera izango dute. Proposamena audio-podcastak egitea da. Podcasteko gaia castingak izango dira. Informazio gehiago izateko, ikasleek ikerketa txiki bat ere egin dezakete: benetako casting-iragarkiak bilatu, emakumezkoen eta gizonezkoen profil-eskaerak konparatzeko.

Podcastetan aurkezle (multzo) bat izaten da eta gai zehatz baten inguruan eztabaidatu ohi da. Aurkezleaz gain, baliteke beste laguntzaile batzuek ere parte hartzea podcastean. Hori bai, gaur egun era askotako podcastak daude. Casting baterako aholkuak izan daitezke, castingei buruzko benetako elkarrizketa bat aktore bati, izena eman nahi ez duen emakume baten fikziozko testigantza, asmatutako narrazio bat... erabili irudimena!

Gidoi txiki bat prestatzea komeni da betiere, nahiz eta gero inprobisazioa erabili. Grabatzeko orduan, garrantzitsua da oihartzunik gabeko toki isil bat eta grabagailu on bat aukeratzea (telefono mugikorra erabil daiteke) eta hitz egiteko txandak errespetatzea. Podcastak luzeak izan ohi dira, baina kasu honetan 15 minutuko muga izango dute, gero gelan entzun ahal izateko. Gehien gustatu zaizkienak sare sozialetan ere partekatu ditzakete gero.

- 4. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena, antzezpena edo grabaketa egingo dute ikasleek, euren lanaren emaitzak gelakideei ezagutarazteko.

4. Gaia: Feminismoaren olatuak. Gaur egun

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/feminismoaren-olatuak>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Materiala** Euskalkitegia

Feminismoaren olatuak

Feminismoaren historia kontatzeko garaian, olatuez hitz egiten da. Zenbagarren olatuan gaude? Batzuek diote olatuen teoriak Europako emakume zurien historia kontatzeko bakarrik balio duela. Olatuena baliagarria al da gaur egun ere? Zenbait feminista adituren testigantzak batu ditugu bideo honetan.

Mailak: DBH

Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan

Ikasgaiak: Balio etikoak

Gaiak: Genero-berdintasuna

0 puntu 5 izarreko maximotik
0 iritzi guztira

JOSEBE ITURRIOZ

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Noiz eta nola hasi zen feminismoa munduan? Ezagutzen al duzue feminista aitzindaririk?
- Zer uste duzue esan nahi duela "feminismoaren olatua" terminoak?
- Ezagutzen al duzue feminismoaren olaturik? Zenbat feminismo-olatu izan dira? Zenbatgarren olatuan gaude?
- Ba al dakizue zer den sufragismoa?
- Zer dakizue ilustrazioari buruz?
- Zer gertatu zen Frantziako Iraultzan?

Gaian pixka bat kokatzeko, olatuen metaforari buruz zertxobait jakitea komeniko litzateke, nahasgarria gerta daiteke-eta, hainbat interpretazio daudelako. Feminismoaren historiari buruzko bideo hau ere ikus daiteke: [La historia del feminismo](#) (10 min).

Bideoa ikusi aurretik, feminismoaren olatuen teoriaren zertzelada batzuk ezagutuko ditugu. Hona hemen eskema bat:

1. **olatu**. Ilustrazioa. Olympe de Gougesek Frantzian (1791) eta Mary Wollstonecraftek Erresuma Batuan (1792) emakumeendako eskubide zibilak aldarrikatu zituzten, besteak beste hezkuntzarako aukera.
2. **olatu**. Sufragismoa: boto-eskubidearen aldeko borroka, ekintza sozialaren bidez: manifestazioak, kartelak, gose-grebak... AEBetan eta Erresuma Batuan. *Sentimenduen Deklarazioa* (1848). Poliki-poliki boto-eskubidea lortzen joan ziren herrialde batzuetan. (Autore askok 1. olatua eta 2.a **bakarra** direla uste dute: emakumeen eskubide zibil eta politikoen aldeko olatua; berdintasunaren feminismoa).
3. **olatu (askorentzat 2. olatua)**. Feminismo berria, 60ko hamarkadan. Berdintasunaren feminismoa vs. feminismo erradikala. Sistema/patriarkatua suntsitu behar da: ez da aski eskubide berdinak izatea. Simone de Beauvoirrek *Bigarren sexua* liburua idatzi zuen Frantzian (1949), Betty Friedanek *Feminitatearen mistika* AEBetan (1963)... Abortu-eskubidea, plazererako eskubidea...
4. **olatu (askorentzat 3. olatua)**. Interseksionalitatea eta aniztasuna feminismoan, 90eko hamarkadatik aurrera. Korrante desberdinen sorrera: transfeminismoa, feminismo dekoloniala, ekofeminismoa... feminismoaren subjektu anitzagoa. Autore batzuen ustez, orain 5. olatu (4. olatu) batean egongo ginateke, 2000. urtetik aurrera, besteak beste Interneten eraginez: feminismo globalago bat.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Adibidez, *absentzia*, *feminismo dekoloniala*... Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaiuzue bideoa? Iratxe Retolazak proposatzen duenaren arabera, zenbat olatu izango lirateke? Zein dira olatu bakoitzaren ezaugarriak? Arbelean idatzi ditzakegu, eta gero osatzen joan.
- Orain arte ikusi dugunarekin, zer iritzi duzue olatuei buruz? Lagungarria al da feminismoa azaltzeko? Ba al dauka zentzurik zuentzat?
- "Emakumea ez da sortzen, eraiki egiten da" (Simone de Beauvoir). Bideoan esaten da bigarren olatuan konturatu zirela emakumea 'eraiki' egiten dela. Zer esan nahi du horrek?
- Zergatik ez dago adostasunik olatuei buruz hitz egiten denean?
- Nola ikusten duzue feminismoak egin duen bidea gaur egungo ikuspegitik?
- Zerrendatu, kronologikoki, historian zehar eskatu eta lortu diren eskubideak. Zer dago lortzeko oraindik?
- Gaur egungo gizartea feminista dela iruditzen al zaiuzue? Zergatik ez/bai?

Bideoan, nahiko zabalduta dauden baina agian beti ondo erabiltzen edo ulertzen ez diren hainbat termino erabiltzen dituzte hitzunek. Adibidez:

- *Genero-eraikuntza*
- *Kontrakultura*
- *Transfeminismoa*
- *Dekolonialismoa*

Taldeka, eta aldez aurretik informaziorik bilatu gabe, termino horiei buruz hausnartzea eta bizpahiru lerro idaztea eskatuko zaie, adibideak jarritz. Ondoren, kontzeptuak sarean, liburuetan edo bestelako materialetan bilatuko dituzte. Azkenik, bi zutabe osa ditzakete: aurrez uste zutena eta gero jakin dutena. Ondorioak gelakideekin partekatu ditzakete, ozenki.

3. Euskal Herrian zer? Gaian sakontzeko, Euskal Herrira begira ipini, eta feminismoarekin lotutako beste bideo hau ikus daiteke (bideo-fitxan proposamenak daude): [Feminismoaren hastapenak Euskal Herrian](#)

Bigarren (batzuentzat hirugarren) olatu feministaren sorburua 1968ko maiatzean kokatzen dute askok. Charles de Gaulleren gobernuaren aurkako protesta mugimendu handia izan zen Frantzia: “1968ko maiatzeko iraultza” bezala da ezaguna. Parisen gertatu ziren borroka nagusienak; ikasleak eta langileak kalera atera ziren protestatzera. Inoiz Frantzia izandako greba orokorrik handiena egin zen: 9 milioi pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte bertan. 1968ko maiatzeko mugimenduak eragina izan zuen beste herrialde batzuetan ere.

Mariasun Landa idazlea Parisen egon zen garai hartan: “Emakumezkoak konturatu ziren mugimendu hura gidatzen zuen ezkerrek berdin baztertzen zuela emakumezkoa, ogitartekoak prestatzera mugatuta zeudela”, dio. Kontzientzia hartze horrek sortu zuen Frantziako lehen mugimendu feminista nagusia, 1970ean: *Mouvement de libération des femmes* (MLF) delakoa. Euskal Herrian ere laster sortuko ziren lehenengo emakume asanbladak, Iparraldean lehenbizi eta geroago Hegoaldean.



Iturria: [Jeanne Menjoulet](#)

Beste bi bideo hauek ere interesgarriak izan daitezke, gaur egungo mugimendu feminista hobeto ulertzeko:

- [Feminismoaren bilakaera Euskal Herrian](#)
- [Gaur egungo praktika feministak](#)

4. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotzat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Sormena lagun"*. Sufragismoari buruzko film bat ikusi, eta kartelak sortzea proposatzen dugu.

"Sufragistak" (*Suffragette*) filmak kontatzen du nola sortu zen sufragismoa Erresuma Batuan 1912an, I. Mundu Gerraren bezperetan. Sarah Gavron zinemagile britainiarrak zuzendu zuen, 2015ean. Emakume sufragisten gehiengo langile klasekoa zen eta haien protestek ezertarako ez zutela balio ematen bazuen ere, erradikalizatu zirenean, berdintasunaren aldeko hainbat ekintza egin zituzten, bizitzan zehar lortutako guztia galtzeko arriskuan jarrita (lana, etxea, familia...).

Sufragismoaren mugimenduaren kontrako jarrerak erakusteko, kartel ugari atera zituzten. Hona hemen batzuk:



Sufragistek ez zuten baliabiderik kartelak egiteko; kontra zeudenek, bai. Proposamena filmean agertzen diren esaldi esanguratsuak hartu eta horiekin kartelak egitea da; hau da, sufragismoaren kontra egin zutenei erantzunez, kontra-kartelak egitea.

Estilo honetako esaldiak erabil daitezke kartelak sortzeko:



Estilo horretako kartelak egiteko, gaur egungo leloak ere erabil daitezke. Gaztelaniaz askoz lelo gehiago daude. Erabili irudimena, eta asmatu esaldi irudimentsuak, euskaraz. Adibidez, "*Taila txikiari boikota: estutzen dit potota*". Hona hemen ezagunak diren lelo batzuk:


- ✓ "Ez dut ausarta izan nahi: libre izan nahi dut".
- ✓ "Erasorik ez erantzunik gabe"
- ✓ "Nire gorputza, nire erabakia"
- ✓ "Bollera da bide bakarra"

Kartelak taldean egingo dira eta gelakideen artean azalduko dira lanak. Kartelak gelan zintzilikatu daitezke gero, erakusketa txiki bat egin, martxoaren 8an erabili...


- *"Testigantza bila"*. Euskal Herrira begira jarriko gara. [Ahotsak.eus](https://www.ahotsak.eus) webgunean eta oro har sarean testigantza gehiago bilatuko dituzte ikasleek, adibidez herrikoak, feminismoari buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.
Bilaketa egin eta esanguratsua iruditu zaien pasarte bat aukeratuko dute.
Ahotsak-en elkarrizketatutako emakume feminista batzuk:

<u>Mertxe Uranga</u>	<u>Miren Aranguren</u>	<u>Iratxe Retolaza</u>	<u>Arantxa Gurmendi</u>
<u>Lola Valverde</u>	<u>Miren Garmendia</u>	<u>Maite Gonzalez</u>	<u>Josebe Iturrioz</u>
<u>Kattalin Miner</u>	<u>Marijo Olaziregi</u>	<u>Aqurtzane Intxaurrega</u>	<u>Bea Egizabal</u>
<u>Koldobike Mujika</u>	<u>Uxue Alberdi</u>	<u>Nerea Ibarzabal</u>	<u>Karmele Jaio</u>

Iritzi-artikuluak, hedabideetako elkarrizketak... toki askotan bilatu daiteke informazioa. Aurkitutako esanak gaztelaniaz baldin badaude, euskaratu egingo dituzte.



Informazio-bilketan kontuan hartu daitezkeen puntu batzuk:



Ikaskideekin partekatu (5 minutuko aurkezpena), eta iritzi-trukea egin.

- *"Historia egiten"*. Feminismoaren historiari buruz ikertzea proposatzen dugu: informazio gehiago aurkitzea, eta ikaskideekin partekatzea. Bakarka edo talde txikitik egin daitezkeen lana da.

Bidea errazteko, hona hemen hainbat proposamen:

A. Feminismoaren historia:

Olatuen aurretik, aurrekariak

Ilustrazioa eta herritarren berdintasuna

Sufragismoa

Feminismoaren bilakaera Frantzian

Feminismoa Erresuma Batuan

Feminismoa Afrikan

Feminismoa Hego Ameriketan

Feminismoa AEBetan

Feminismoa Asian



Emakume sufragista batzuk, XX. mendearen hasieran. Iturria: [Infobae](#)

B. Emakume feminista batzuk (ehunka daude):

<u><i>Guillermina de Bohemia</i></u>	<u><i>Christine de Pizan</i></u>	<u><i>Olympe de Gouges</i></u>	<u><i>Mary Wollstonecraft</i></u>
<u><i>Sojourner Truth</i></u>	<u><i>Flora Tristan</i></u>	<u><i>Betty Friedan</i></u>	<u><i>Simone de Beauvoir</i></u>
<u><i>Gloria Steinem</i></u>	<u><i>Angela Davis</i></u>	<u><i>Dolores Huerta</i></u>	<u><i>Kate Millett</i></u>
<u><i>Shulamith Firestone</i></u>	<u><i>Clara Zetkin</i></u>	<u><i>Clara Campoamor</i></u>	<u><i>Ruth Bader Ginsburg</i></u>

Gai bat edo pertsona bat aukeratu (ez da errepikatzea komeni), informazioa eta argazkiak bilatu, ideia nagusiak laburbildu, eta ahozko aurkezpenak egingo dituzte.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, euren lanaren emaitzak gelakideei ezagutarazteko.

5. *Gaia*: LGTBIQ+ mugimenduaren hastapenak. LGTBIQ+

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/lgtbi-mugimenduaren-hastapenak>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'LGTBI mugimendua'. Below it, a text block describes the video's content: 'Euskal Herrian LGTBI mugimendua izan duen bilakaera ezagutaraztea da bideo honen helburua: 70eko eta 80ko hamarkadetako mugimendua. Horretarako, mugimenduko hainbat kide elkarrizketatu ditugu.' A video player is embedded, showing a man speaking. To the right of the video, a metadata box contains the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaiak:** Genero-aniztasuna
- 4,20** puntu 5 izarreko maximoetik
- 5 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa LGTBIQ+ mugimenduari buruz dela esanda:

- Ezagutzen al duzue LGTBIQ+ mugimenduaren historia?
- Noiz eta nola hasiko zen garatzen Euskal Herrian?
- Zein zen homosexualen egoera frankismo aurretik eta ostean?
- Inoiz entzun al duzue "Alfer eta Gaizkileen Legea"ri buruzko zerbait?
- "Gay" hitzak zeinentzat balio duela uste duzue?
- Homosexualen aurkako jarrerarik eta ekintzarik jasan edo ikusi al duzue?
- Ba al dakizue zer ospatzen den ekainaren 28an? Nondik dator ospakizuna?

LGTBIQ+ kolektiboko hizki bakoitzaren esanahia ezagutzeko, beste bideoaren aurretik bideo hau ere ikusi daiteke: [LGTBIQ+](#)

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritzia partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Zer da gehien harritu edo hunkitu zaituztena?
- Emakumeek sexualitate ez zutela uste zela esaten da bideoan. Zer esan nahi dute horrekin? Emakume lesbianarik ba al zegoen?
- Homosexualitatea buruko gaitz gisa ikusten zen eta "sendatzeko" hainbat tratamendu ematen zituzten. Zer iritzi duzue horri buruz? Oraindik ba al dago uste hori (munduko toki batzuetan)?
- Stonewall-eko liskarren ondoren eta gaur egunera arte aldaketa handiak egon direla uste al duzue?
- Ezagutzen al zenuten EGHAM elkartea?
- Zergatik uste duzue mobilizatu zela hainbeste jende Francisen hilketaren ondoren? Hiltzailea polizia izateak baldintzatu al zuen egoera?
- Aurpegia emateko zailtasunak aipatzen dira bideoan. Zirkuko animaliak bezala sentitzen ziren. Zer iruditzen zaizue morbo hori?
- Emakumeen kasuan zailagoa zen homosexualitatea agertzea. Zergatik? Gaur egun berdin ikusten al dira mutil eta neska homosexualak? Aldaketarik egon al da?

Koldobikek bere kasua azaltzen du bideo-pasarte honetan, zenbat kostatu zitzaion lesbiana moduan agertzea eta zergatik: [Lesbianak zirela aitortzeko beldurrak](#).

La Otxoaren Libérate abestia osorik entzun, eta komentatu egin daiteke.

Gaian gehiago sakontzeko, bideo hauek ere ikusi daitezke (proposamen pedagogikoak dituzte):

- [Armairutik ateratzen](#)
- [Familia-ereduak](#)
- [Trans izatea](#)

LGTBIQ+ mugimenduaren historia osatzeko, posible da informazio gehiago bilatu, eta guztien artean puzzlea osatzea.

- Stonewall-eko istiluak
- Homosexualentzako kartzelak
- Francisen hilketa
- HIESaren ondorioak
- Erreferenteak sexu-askapen mugimenduan: Mikel Martin, *La Otxoa...*

Taldeka ipini, talde bakoitzak gai bat aukeratu, eta hurrengo saioan topatu dutena partekatu dezakete.

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkari bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak elkarrizketatzaile bihurtuko dira. Garai batean homosexualekiko zer ikuspegi zegoen eta ikuspegi hori nola joan den aldatzen jakiteko, etxekoei eta ingurukoei elkarrizketak egitea da proposamena.

Galdetegiak talde txikitan banatuta prestatu daitezke eta, ondoren, talde handian partekatu eta osatu. Era honetako galderak egin daitezke:

- Frankismo garaian jakiten al zen herrian nor ziren homosexualak? Mutilak ala neskek ziren? Zer esaten zen haietaz? Nabaritzen al zitzairen?
- Ba al zegoen jazarpenik homosexualen kontra? Nola defendatzen ziren? Herrian gelditzen ziren ala alde egiten zuten?
- Nola bizi izan zenuen HIESaren agerpena, hilgarria zen garai hori? Zerekin lotzen zen? Zer entzuten zen?
- Aldatu al da homosexualakiko ikuspegia? Eta zure iritzia aldatu al da?
- Entzun izan al dituzu "marikoia" eta "tortillera" bezalako hitzak mesprexuz edo modu iraingarrian erabiltzen? Ezagutu al duzu eraso homofobo edo transfoborik?
- Ba al dago sexu-askapenerako mugimendurik herrian? Zein dira erreferenteak? Badira herritik kanpo militatzen dutenak?

Elkarrizketatuaren arabera (adinekoa, gaztea...), galdetegia moldatu egin beharko da. Lana bakarka edo binaka egin daiteke. Elkarrizketak bideoan grabatuko dituzte, telefono mugikorrarekin edo bideokamerarekin. Inportantea: horizontalean grabatu eta tripodera erabili! Eta ziurtatu audioa ondo entzuten dela (mikrofonorik erabiltzen ez bada, kamera oso urruti ez ipintzea komeni da).



Ondoren zer? Elkarrizketatutako pertsonaren biografia labur bat osatu, eta jasotako testigantzaren laburpena egingo dute idatziz, bideoa erakutsi aurretik azalpenak eman ahal izateko. Azkenik, bideo-muntaketa egingo dute, argazkiak (Interneten bilatu) eta musika ere sartuta (bideoak editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko zaie).

Emitza gelan aurkeztuko dute, ahozko aurkezpen txiki bat eginez:

- ✓ **Azalpena:** prozesuaren nondik norakoak (nor elkarrizketatu den, zergatik, non, esperientzia nolakoa izan den, zer izan den zailena, zer politena...)
- ✓ **Bideoa** erakutsi

Ikasle (bikote) bakoitzak pertsona bat elkarrizketatuko du. Adin eta profil desberdinetako pertsonak elkarrizketatzea da helburua: homosexualak, heterosexualak, familiakoak (aita, amona, izeba...), lagunak, gazteak, adinekoak...

Bideo onenak aukeratuta, bideo-emanaldia egin daiteke ikastetxean. Posible da baita ere aurkezpen guztien ondoren elkarrizketatuetako batzuk aukeratu, eta pasarte desberdinekin beste bideo bat sortzea. Irudiak zabaltzeko, elkarrizketatuak jakinaren gainean egon behar lirateke.

- *"Testigantza bila"*. Testigantzak bilatu, eta haien inguruan hausnartzera gonbidatuko ditugu ikasleak.

Ahotsak.eus webgunean hainbat testigantza aurkitu daitezke LGTBQ+ kolektiboari buruz: frankismoko legeak, elizaren indarra, homosexuala izatearen estigma, jipoiak eta zigorrak, emakumearen sexualitate eza... hona hemen batzuk:

- Homosexualak kartzelara "por vagos y maleantes"
- Homosexualitatea ezkutuan
- Homosexualitatea bere gazte garaian
- Patxiren ezkontza eguneko konfesioa
- Frankismoa sexualitatearen aldetik, oso qoqorra
- Homosexualek pasa behar izan zituztenak
- Homosexualen ezkontza
- Homosexualitatea legez jazarrita
- Homosexualitatea qai tabua



Binaka edo hirunaka jarrita, bideo-pasarte bat aukeratu dute [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus) webgunean bilaketa eginda (<https://ahotsak.eus/qaiak/020403/>). LGTBIQ+ kolektiboarekin zer ikusia izango du (talde bakoitzak bideo-pasarte desberdina aukeratzea izango litzateke interesgarriena; nola egin? Aukeratu ahala, izenburua arbelean ipintzen joan daitezke, eta ezingo da errepikatu. 185 pasarte daude aukeran!).

Pasartea ikusi, eta iritzi-trukea egingo dute. Ondoren, aurkezpen txiki bat prestatuko dute, gelakideen aurrean azaltzeko, gehienez ere hamar minutukoa.

- Zer azaltzen da bideoan? Nork? Laburpena egin
- Zergatik aukeratu dugu? Zergatik da interesgarria?
- iritzia eman
- Bideoa ikusi

- *"Iritzia eman"*. Eraso zein jarrera homofobo eta transfoboak abiapuntu moduan hartuta, ikasleek iritzia emateko modua aurkituko dute, sormena baliatuta.

Francisen hilketa mugarriztat hartzen da: orain dela 44 urte gertatu zen arren, gaur egun ere izaten dira eraso homofobo eta transfoboak. Estigmatizazioa eta gorrotoa ez dira desagertu. Zer diote homofobiari buruzko ikerketek? Horri buruzko artikulu batzuk: [Homofobia Gasteizen](#), [Homofobia ikastetxeetan](#) eta [Homosexualitatea Iparraldeko ikastetxeetan](#).

Azken urteetan gertatu diren jazarpenetatik bat aukeratu, informazioa bilatu, laburpen bat egin eta gaiari buruzko iritzia ematea proposatzen da. Hona hemen adibide bat: [Eraso homofoboa Villabonan](#). Nahi izanez gero, inguruko kasu erreal bati buruz edo kasu pertsonal bati buruz ere egin daiteke lana. Jarrera homofoboak ere izan daitezke: ez dauka indarkeria fisikoa egon beharrik (adibidez, "marikoi" hitzaren erabilera modu iraingarrian).

Lana banaka egingo dute eta amaieran bakoitzak gelan aurkeztuko du bere lana. Idazlan bat izan daiteke, baina baita kartela, bideoa, bertsoa, poema, performancea edo komikia ere. Ikasle bakoitzak erabaki dezala zer egin nahi duen.

Ondoren, emaitza ikastetxean partekatu daiteke: lanak eskolako korridoretan jarrita, adibidez.



Eraso homofobo baten kontra egindako elkarretaratzea, Gernika-Lumon. Iturria: [Busturialdeko Hitza](#)

- *Sormena lagun*". Sormena erabiltzera bultzatuko ditugu ikasleak, baina ikuspuntu positibo batekin. Abesti askatzaileak sortuko dituzte.

Proposamen hau talde txikitan egin daiteke. Helburua: sexu-askapenaren aldeko abestia sortzea. Hainbat modu daude, gutxienez hiru:

1. *La Otxoaren* Libérate edo antzekoak (sexu askapena aldarrikatzen dutenak; adibidez, Plumofobia edo Soziedad Alkoholikaren Sin Barreras) euskaratu
2. Gustuko abesti bat aukeratu, eta letra aldatu
3. Bertso-doinu bat aukeratu, eta bertsoa(k) sortu

Taldetxo bakoitzak bere abestia aurkeztuko du. Elkarrekin kantatuko dute (horretarako, posible da jatorrizko abestia erabili, eta karaokea egitea); mozorrotu ere egin daitezke edo era berezian jantzi. Zuzeneko musika erabiltzea ere posible da, noski: gitarra joaz abestea, adibidez.

Lehiaketa bat antolatu daiteke gelan; helburua ez denez lehiakortasuna sustatzea, ez da saririk egongo, baina batzuetan lehiak sortzera animatu dezake. Abesti bozkatuena izango da irabazlea.

Hona hemen sexu-askapena aldarrikatzen duten abesti batzuk, euskaraz: Berri Txarrak taldearen Lotsarik gabe eta Yogurinha Morovaren Eraso sexistarik ez. Inspirazio-iturri moduan balio dezakete, abestia sortzeko garaian.



Gaszte kuadrilla bat mozorrotuta dantzan, Durangoko Karmengo jaietan. Iturria: durango.com

- 4. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena edo emanaldia egingo dute ikasleek, euren lanaren emaitzak gelakideei ezagutarazteko.

6. *Gaia*: Emakumeak bertsolaritzan (XV-XIX. mendeak). Historia

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/historia-emakumeak-bertsolaritzan-1>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there are navigation tabs: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Emakumeak bertsolaritzan I'. Below the heading, there is a short introductory text in Basque. A video player is embedded, showing a woman speaking. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgoiak:** Euskara eta Literatura
- Gaiak:** Genero-berdintasuna, Bertsolaritza
- 0 puntu 5 izarreko maximotik
- 0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa sasoi bateko emakume bertsolariei buruz dela esanda:

- Ba al zegoen bertsolaririk XV. mendean? Baldin bazegoen, gizonezkoak edo emakumezkoak izango ziren?
- Nola irudikatzen duzu bertsolari bat XV. edo XVI. mendean? Zer klase ekonomikoko familia izango zuen? Ikasketarik izango al zuen?
- "Eresi" hitzak zer ekartzen dizue burura?
- Nor izango ote ziren "profasadorak"?
- Ba al dakizue zer diren bertsopaperak? Zergatik zabaldu ziren hainbeste?
- Ba al dakizue zer ziren Lore Jokoak?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Zer da gehien harritu zaituztena?
- Bideoan esaten da emakumezkoek sortutako bertso eta poema oso gutxi iritsi direla gaur egunera. Zergatik ote? Noiz geratzen ziren jasota?
- Estitxu Eizagirrek esaten du emakumeek zein gizonaek kantatzen zutela, baina ez dakigula zer balio emango zitzaion bakoitzari. Zuek zer uste duzue?
- Bertso paper ugari anonimoak zirela aipatzen da bideoan. Zergatik izango ote zen?
- Emakumeak plazetatik erretiratzen hasi ziren XIX. mendetik aurrera. Zergatik?

XX. mendean ezagutu dugun bertsolaritza eredu maskulinoetan oinarritu da. Bertso-txapelketetan eta bertso-saioetan bertsolariak gizonezkoak izaten ziren. Sagardotegietan eta tabernetan ere batik bat gizonezkoek kantatzen zuten. Kristina Mardaras eta Arantzazu Loidi izan ziren bertso txapelketetan parte hartu zuten lehen bi emakumezkoak, 80ko hamarkadan. Horregatik, irudipena izan dezakegu beti horrela izan dela, baina dokumentuek kontrakoa erakusten dute: alegia, garai batean ohikoa zela emakumeek bertsotan egitea.

Gainera, emakumeak aurretik ere egon ziren plazan: Lore Jokoetako bertso lehiaketetan hartu zuten parte (Lore Jokoak literatura eta poesia sustatzeko sortu ziren), idatziz zein bat-batean. Hona hemen izenetako batzuk: Dominika

Hiribarren, Hondarribiko Joxepa, Marieder Uthurralt, Dominika Goyhetché, *Mari Luixa Erdozio*, *Aña Etxegarai* *Aña debrua* (Marie Hargain bertsolariarekin aritzen zen bat-batean)... Erdoziok eta Etxegaraik bat-bateko bertso lehiaketa batzuk irabazi zituzten.



Aña Etxegarai. Iturria: [BDB](#)

Emakume horien biografiei erreparatu ([artikulu honetan](#) ere aipatzen dira Hargain eta Etxegarai. Apaizen begiradapean kantatzen omen zuten), eta komentatu.

Gaian sakontzeko, bertsolaritzari buruzko beste bi bideo hauek ere ikus daitezke:

[Bertsolaritzaren bilakaera](#) (XX. mendea). Bertsolaritza oso maskulinizatua egon zen bideoan azaltzen den garaian eta, gainera, historia gizonezkoen ikuspegitik kontatua dago. Kontrastea handia da, aurreko bideoarekin alderatuta.

[Emakumeak bertsoen plazan](#). Gaur egun bertsotan dabilzan hainbat emakumeren testigantzak: emakume izateak nola baldintzatu duen beren bertso-ibilbidea.

- 3. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitik. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotzat bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Hitzen arrastoan"*. Milia Lasturkoren eresiaren bertsoak egitea da proposatzen dena, eta, horretarako, abestiaren letra aztertzea eta hitzekin jolastea.

Ikus [Wikipedian](#) Esteban de Garibaik jasotako Milia Lasturkoren eresiaren letra eta azalpenak (hitzen esanahia). Milia Lasturkoa gazterik hil zen, erditzeko orduan, Arrasaten, XV. mendearen lehen erdialdean. Eresia horretan, Miliaren ahizpak eta koinatak Milia Lasturkoaren heriotza dute kantagai. Lehen lau estrofetan, Miliaren ahizpak adierazten du Peru Gartzia Orokoa senarrak ez diola tratu onik eman Miliari, eta Arrazolako Marinarekin ezkontzeko asmoa duela salatzen du. Bosgarren eta seigarren estrofetan, Peru Gartziazen arrebak, Santxa Ortizek, hartzen du hitza, anaiaren alde egiteko. Azken hiru ahapaldietan, Miliaren ahizpa mintzo da ostera. Miliaren heriotzak bi familien ohorea auzi bihurtu zuen. Eresiaren jatorria ezagutzeko, Anabel Ugaldereen bideo-pasarte hau ere ikus daiteke: [Eresiak, hiletako bertsoak](#).

Eresi horrekin hainbat bertso egin dira, musika estilo ezberdinetan. Hona hemen batzuk:

- ✓ Imanol Epeldek, [Etxepare RAP](#) proiektuaren sortzaileak, eresia rap bilakatu zuen.
- ✓ [Maraca Diablaren bertsoa](#), bideoklip eta guzti.



MARACA DIABLO - Milia Lasturko

- ✓ Oskarbi taldearen [Lasturko Milia](#)

- ✓ Benito Lertxundik erreztatua: Milia
- ✓ Itxaro Bordak sortutako poema: Milia Lasturko
- ✓ Lasturko Miliaren beste bertsio bat
- ✓ Ostolaza eta Pujana trikitilarien Milia (soinua bakarrik, letrarik gabe)

Taldeka, jatorrizko eresia gaur egungo hizkera informalerara itzultzea proposatzen dugu (horretarako, jatorrizkoa aztertu eta ulertzea komeni da) eta eresia osoa edo zati bat musikatzea. Talde bakoitzak nahi duen estiloa erabil dezake (rocka, rapa, technoa, folka...) eta baita musika tresna edo ordenagailua (sintetizadore bezala). Posible da baita ere Lasturko Miliaren historian inspiratutako beste pieza bat sortzea (poema, kanta, bertsoa...).

Egindako lana gelakideen aurrean aurkeztuko dute taldeka.

- *"Bestearen azalean"*. Bertsoak sortzeagatik epaituak izan ziren emakumeen azalean jarriko dira ikasleak, eta antzezlan laburrak sortuko dituzte: epaiketak antzeztuko dituzte.

"Profasada" hitzak esamesa esan nahi du; besteei buruzko bertsoak egiten zituzten emakumeei "profasadorak" deitzen zieten. Batzuk epaituak izan ziren egindako bertsoengatik. Gaiari buruz gehiago jakiteko, Ahotsak-eko testigantza gehiago entzun daitezke: adibidez, "Profasadak" edo emakume bazter-endredaitzaileak, "Profasadorak" edo jarrera desegokiak zituzten emakume bertsolariak, Profasadorak bertsotan ibiltzen ziren eta Profasadoren epaiketak.

Epaiaketa horietako bat irudikatzea, eta antzezlan bat sortzea proposatzen da. Gela talde handietan banatuko da (8-10 ikasle) eta talde bakoitzak profasaden inguruko istorio bat sortu, idatzi eta antzeztuko du.

- Nor dira epaituak?
- Nork eraman ditu epaitegira? Zergatik?
- Istorioren laburpena
- Bertsoa(k)
- Pertsonaiak (epailea, akusatzaileak, akusatuak-epaituak, testiguak...).

Hurrengo puntuak jorratu daitezke antzezlanaren barruan:

- Emakumeak non biltzen ziren
- Nolakoak ziren: familia-mota, lanbidea, janzkera...
- Txutxu-mutxuaZ nola eta non enteratzen ziren
- Bertsoak nola sortzen zituzten eta kantatzen nola hasten ziren
- Kopiak edo bertsoak herrian nola zabaltzen ziren: merkatuan, tabernan, etxean...
- Kaltetua nola enteratzen zen eta horrek berarentzat zituen ondorioak
- Salaketa eta epaiketa
- Epaiketaren ondorioak

Antzezlanean bertso edo kopia bat sortu beharko du talde bakoitzak, eta kantatu ere egin beharko dute, baina antzezlan hitzez egingo da. Horretarako, gidoia idatziko dute, pertsonaia bakoitzak esango duenarekin. Eszenografia eta jantziak ere zaindu egingo dira. Sortutako bertsoaren kopiak publikoaren artean banatuko dira, guztiek batera kantatu ahal izateko.

Antzezlanak grabatu egin daitezke, eta ikastetxeko webgunera edo Youtubera igo daitezke.



Salemgo sorginen kontrako epaiketaren litografia bat. Iturria: [National Geographic](#)

- "Gaur egunera begira". Gaur egunera begira ipiniko dira ikasleak, eta euskal musikagintzako uzta betaurreko moreekin aztertuko dute.

Garai bateko kanta-paperak eta bertsopaperak gaur egungo diskoen parekoak izango lirateke. Izan ere, horixe zen sortutako abestiekin dirua eta ospea lortzeko bidea. *Billboard* astekari estatubatuarren zerrendaren arabera, 2022an kontzertuekin diru gehien irabazi zuten 10 musikariak gizonaizkoak izan ziren:



1. Bad Bunny: 373 milioi dolar (65 kontzertu)
2. Elton John: 334 milioi dolar (84 kontzertu)
3. Ed Sheeran: 246 milioi dolar (63 kontzertu)
4. Harry Styles: 214 milioi dolar (71 kontzertu)
5. Coldplay: 208 milioi dolar (40 kontzertu)
6. The Rolling Stones: 179 milioi dolar (20 kontzertu)
7. Red Hot Chili Peppers: 176 milioi dolar (31 kontzertu)
8. Def Leppard & Mötley Crüe: 173 milioi dolar (35 kontzertu)
9. Kenny Chesney: 135 milioi dolar (41 kontzertu)
10. The Weeknd: 131 milioi dolar (19 kontzertu)

Iturria: [Billboard.com](https://www.billboard.com)









Euskal Herriko musika taldeei begira jarriko gara. Azkenaldian plazaratutako diskoek eta kontzertuak ematen dabiltzan musika taldeei begira, zehazkiago. Badok.eus webgunean "[Azken diskoak](#)" zein izan diren ikusteko aukera dago. Gauza bera egin daiteke kontzertuekin: [kontzertuen agenda](#) begiratu eta aztertu.

- Aukeratu disko/kontzertu batzuk (kopuru handi samarra izatea komeni)
- Zenbat musikari dira gizonaizkoak eta zenbat emakumezkoak? Atera ehunekoak!
- Emakumezkoak dauden musika taldeetan denak emakumeak dira ala gizonaizkoak ere badaude? Eta alderantziz?
- Emakumeen lanei erreparatu. Abesti bat aukeratu, eta gelara eraman (ezagutzen ez zituzten musikariak aukeratu ditzakete).

Talde txikitan egin daiteke ariketa hau. Euskal musikagintzaren erradiografia modukoak egingo dituzte ikasleek, emakumeen lanak nabarmenduz.

Talde bakoitzak egindako azterketa gelakideekin partekatuko du, aurkezpen txiki baten bidez, eta iritzi-trukea sustatuko da.

AZKEN DISKOAK

			
— Horma Gutziak	— MIGUEL A. GARCIA & MIKEL VEGA Explets	— KARMA Odolean dena	— Catch & Soul Isilitasuna ekaitzaren ostean
			
— Kattalin eta nenufarrak Hubble	— Fufu Erroak	— Egar Jimpeako saiok	— Haira Laupaborts aire ttipi

Iturria: badok.eus

- 4. Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, ahazkotasuna lantzeko.

7. Gaia: Feminismoaren bilakaera. Gaur egun

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/feminismoaren-bilakaera>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there are navigation tabs: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Feminismoaren bilakaera'. Below the heading, there is a short text introduction in Basque. A video player is embedded, showing a person speaking. To the right of the video player, there is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaiak:** Genero-berdintasuna
- 0** puntu 5 izarreko maximotik
- 0** iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

Bideoa ikusi aurretik *Feminismoaren hastapenak* bideoa ikustea gomendatzen dugu. Izan ere, bideo hau bestea osatzera dator. Aurre-ezagutzak aktibatuzko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Erregimen frankistak berdin onartzen al zuen gizon eta emakumeen sexualitatea?
- Zer dakizue feminismoaren historiari buruz? Noiz sortu zen Euskal Herrian eta zer bilakaera izan du?
- Emakumeen Asanbladak 70eko hamarkadaren amaieran sortu ziren. Nolakoak izango zirela uste duzue? Zer landuko zuten?
- Garai batean ez zegoen antisorgailuak gaur egun bezala libreki erosteko aukerarik. Zer uste duzue suposatu zuela emakumeentzat antisorgailuak modu askean lortu ahal izateak?
- Ezagutzen al duzue talde feministarik? Talde feministaren batean parte hartzen al duzue?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zergatik uste duzue emakumeek ezin zutela antisorgailurik erosi erregimen frankistaren garaian?
- Heziketa sexuala, plazera... 70eko hamarkadaren amaieran mahai gainean ipini zuten gai hori. Nola lantzen da gaur egun?
- Abortu-eskubidearen aldeko borroka hamarkada askotan luzatu zen. Espainian Abortuaren Legeak izan duen kronologia bilatu eta hari buruz hausnartu. Zer ondorio atera daiteke? Zein da gaur egungo egoera?
- Mugimendu feministan lesbiana asko zeuden lehen lerroan. Zergatik izan daiteke?
- 90eko hamarkadan feminismoa instituzionalizatu egin zen. Zer esan nahi du horrek?
- Plaz! plataforma aipatzen da bideoan. Zer iruditzen zaizue emakume plataformak hauteskundeetara aurkeztea?
- Queer teoria, postpornoa, transfeminismoa... zer dakizue kontzeptu horiei buruz eta ertzetara begiratzen duen feminismoaz?

Munduko emakumeekin konektatzea, feminismoaren ikuspegi globala aipatzen dute bideoan: Emakume Mundu martxak... Zer da feminismo dekoloniala?

Praktika feministei buruz gehiago jakiteko, bideo hau ikusi daiteke: [Praktika feministak](#).

Praktika horietan ez da gizonetzorik aipatzen, baina feminismoa ez da emakumeen kontua soilik: patriarkatuaren aurka egitea da. Patriarkatua zer den, horri buruz hausnartu daiteke. Horretarako, irudi hau erabil daiteke:

➔ **Nolako da familia hau? Deskribatu (jarrerak, koloreak...)**
Zer gertatzen da zentzumenekin? Interpretatu!



Familia patriarkala. Iturria: gazeta.get

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkari bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Jolastek".* Emakumeari plazererako eskubidea ukatu zaio, gizaldiz gizaldi, baina gizonetzoraren plazerak ere oso ikuspegi mugatua izan du. Autoesplorazio tailerra egingo dugu, bakarka eta begiak estalita, plazerarekin esperimendatzeko.

Ariketa honen helburua gure gorputzarekin eta zentzumenekin plazera bilatzea da; nork bere buruari ematea plazera, alegia, ez kanpoan bilatzea. Inportantea: jantzita egingo da eta ez dira genitalak modu sexualean ukituko.

Hasi aurretik, beraientzat plazera zer den eta plazererako zer bide ezagutzen dituzten (sexua, janaria...) galdetuko diegu.

Jarraitu daitezkeen gidalerro batzuk (20 minutu inguru guztira):


- 1-Itxi begiak.** Begiak estalita mantentzeko, antifazak edo lepoko zapiak erabil daitezke. Begiak estalita mantendu ariketak iraungo duen denbora guztian.
- 2-Erlaxazioa.** Musika lasaigarri bat ipini, eta arnasan ipiniko dugu arreta (musikak ariketa guztian zehar iraun dezake): airea nola ateratzen den eta nola sartzen den, zer ibilbide egiten duen sudur-zuloetatik biriketara eta sabelera. Arnasa sakon eta luze hartu. (5 min.)
- 3-Usaimena.** Arreta usainean ipiniko dugu. Olio-esentzia edo perfume tantatxo bana ipini ikasleei behatz batean. Posible da airean kolonia zabaltzea ere. Ikasleak euren buruak usaintzera ere gonbidatu: eskuak, besoak... (5 min.)
- 4-Dastamena.** Ikasle bakoitzari gerezi bat edo fruta txiki bat emango diogu. Usaindu egingo du, ukitu eta dastatu. Poliki-poliki, zaporea ondo hartuz. (5 min.)
- 5-Ukimena.** Bere burua ukitzen hasiko da ikaslea. Goitik behera joan daiteke: lehehengo burua, ilea, gero belarriak, aurpegia, lepoa, sorbaldak, sabela, besoak, eskuak, behatzak, ipurgaina, izterrak, zangoak, oinak... Bakoitzak bere erritmora egin dezala, eta nahi duen ordenan. Gorputz osoa ukitu dezake, poliki eta sentituz. Ukimenarekin bukatzeko, "autobesarkada" bat eman. Posible da "automuxuak" ematea ere (eskuetan, besoetan...). (5 min.)
- 6-Arnasketa.** Ariketa bukatzeko, arnasketa egin daiteke berriro: hiru arnasketa sakon, eta begiak ireki. (2 min.)



Ikasleak arnastera eta ahotsa askatzera animatuko ditugu ariketan zehar. Oihurik eta antzerkirik ez da onartuko, baina plazerezko hasperenak eta zaratatxoak ongi etorriak izango dira. Ukitzeko modua aldatzen joateko ere

proposatuko diegu: kili-kiliak, laztanak, masaje erako igurtzi sendoagoak... bakoitzak gustatzen zaion ukitzea bilatu beharko du.

Ondoren, talde txikitan elkartu, eta sentitu dutenari buruz hitz egingo dute. Taldeko batek idazkari lana egingo du, eta komentarioak apuntatuko ditu:



Talde txikitan hitz egindakoa talde handian partekatuko dute (idazkariak jasotakoaren laburpena egin dezakete), eta iritzi-trukea egingo da gelan.

- *"Sormena lagun"*. Collage-ak egitea proposatzen da, feminismoa eta patriarkatua irudikatzeko.

Gela taldetan banatuko da eta talde bakoitzak bere erara jorratuko du gaia. Galderak: zer da feminista izatea? Zer da patriarkatua? Mugimenduen, eskakizunen, helburuen, leloen, ekintzen, kartelen, argazkien edo bestelako informazio eta materialen bilaketa egingo dute sarean, eta collage batean irudikatuko dute. Posible da baita ere materiala beraien sortzea: argazkiak atera (adibidez, "We can do it" karteiko emakumea imitatzen), marrazkiak egin... Garai bateko egoera izan daiteke, edo gaur egungoa. Bertakoa zein beste herrialde batekoa. Eztabaidarako bidea ematen duten irudi eta lelo deigarriak ere bilatu ditzakete. Sormena erabili!



Collageetako mezu nagusiak euskaraz izatea lehenetsiko da; beste hizkuntza batzuetakoak euskaratu egin daitezke eta baita lelo berriak sortu ere.

Lanak gelakideen aurrean aurkeztuko dituzte, eta gero ikastetxean jarri daitezke gainerako ikasleek ere ikus ditzaten.

- *"Ika-mika"*. Eztabaida proposatzen da, aldeko eta kontrako jarrerak lantzeko, besteek diotena entzuten eta adostasunetara iristen ikasteko.

Hau da proposatzen dugun gaia: pornografiaren onurak eta kalteak. Pornografia bai ala ez? Noraino bai? Zergatik ez?

A jarrera

*Pornoaren kontra.
Kalte gehiago egiten
du onura baino.*

B jarrera


*Pornoaren alde.
Onura gehiago egiten
du kalte baino.*

Ikasleak bi taldetan (hirutan, asko baldin badira) banatu daitezke. Eztabaida formalen ezaugarriak eta erabiltzen diren formulak eta testu-antolatzaileak zein diren azaltzea komeni da, erabil ditzaten (irakaslearentzat lagungarri gerta daitezke: [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak, eta [beste adibide hau](#)).

Talde bakoitza bi azpitaldetan banatuko da, eta azpitalde bakoitzak zer defendatu behar duen erabakiko du (A eta B jarrerak). Batzuetan ez dira ados egongo defendatzea egokitu zaienarekin, baina hala ere argudioak bilatu beharko dituzte. Azpitalde bakoitzak alde aurretik ikerketatxo bat egingo du defendatu behar duen ikuspuntua jorratzeko (zer adinetan hasten den pornoa kontsumitzen, sortzen duen mendekotasuna, erakusten duen sexualitate-eredua, dauden pornografia motak, sortzen duen negozioa, “porno feminista” deitua...) eta horren arabera arrazoiak eta argudioak prestatuko ditu.

Talde bakoitzean gidari bat egon daiteke, txandak eman eta errespetaraziko dituen. Aukera bat: eztabaida grabatzea eta podcast bihurtzea.

Helburua ez da lehia, ez eta guztiaren gainetik arrazoia izatea ere. Hausnarketa egitea eta jarrera kritikoa lantzea da helburua. Adostasunera iristen saiatuko dira: besteak dioena entzun, eta, dioena zentzuzkoa baldin bada, arrazoia ematen ere jakin behar da. Eztabaidak bukatzean, denen artean hausnartu dezakete:



4. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak ezagutarazteko.

8. Gaiak: Aniztasuna eta integrazioa. Aniztasuna

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/aniztasuna-eta-integrazioa>

The screenshot shows the website interface with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Aniztasuna eta integrazioa'. Below the heading is a short introductory text. A video player is embedded, showing a woman speaking. To the right of the video is a metadata box with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaiak:** Integrazioa, Bizikidetzatza
- Puntuak:** 0 puntu 5 izarreko maximotik
- Irizkiak:** 0 iritzi guztira

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa immigrazioari, aniztasunari eta integrazioari buruzkoa dela esanda.

- Gelan zenbat ikasle zaudete gurasoak beste herrialde batzuetakoak dituzuenak? Zenbat jatorri desberdin daude?
- Pertsona bat etorkina dela entzutean, nola irudikatzen duzue fisikoki pertsona hori?
- Etorkinenganako aurreiritzien zerrenda bat osatu.
- Gizarte arrazista batean bizi garela uste al duzue?
- Kanpotik etortzen den jendea integratzen saiatzen al da? Erantzunak arrazoitu.
- Etorkinak ghetto-etan bizi direla uste al duzue? Auzo edo leku zehatzetan biltzen al dira?
- Zer da zuentzat integrazioa?
- Etorkinek ikasten al dute euskara? Euskarak laguntzen al du integratzen?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Zerbaitek harritu al zaituzte?
- Jatorria jatorri, guztiek euskaraz hitz egiten dute. Zuen ustez horrek hurbilagokoak egiten al ditu? Errazten al du integrazioa?
- Jatorriak eta itxurak baldintzatu egiten dutela diote bideoan. Zer iritzi duzue? Nola sentitzen direla uste duzue?
- Buruan zapia daramanari edo beltzarana denari zer hizkuntzatan hitz egingo zeniekete, ezagutuko ez bazenituzte?
- "Kanpotarra" hitza itsusia dela dio Jokinek. Ados al zaudete? Zer behar da "hemengoa" izateko?
- Khalilak dio igual kanpotik datozen aberatsek gehiago kendu dezaketela pobreek baino. Zer iruditzen zaizue?
- Bideoan esaten da etorkinak ghetto-etan bizitzeko joera sistemaren arazoa dela. Hausnartu horri buruz.
- Nork bere nortasuna baztertu, eta bertako kultura-ohiturak berenagatzea ez dela integrazioa diote. Ados al zaudete?
- Zer egin dezakegu guk integrazioa bideratzeko? Itxiak al dira lagun-taldeak?
- Kultura-aniztasuna aberasgarria al da? Zergatik? Adibideak eman.
- Ezagutzen al dituzue hemen bertan ditugun beste kultura batzuk? Azaldu nongoak diren eta zer berezitasun dituzten.

Khalilari lana ukatu zioten zapia eramateagatik; euskara jakiteak asko lagundu dio integratzen eta oso euskaltzalea da. *Khalilari* eta *Sidiri* buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus beste bideo hau ere: [Bertakotzen: Urretxu-Zumarraqa](#).



Euskal herritarrak ere migratzaileak gara. Bi norabidetako migrazioei buruz hitz egiten da bideo honetan: [Etorkinak eta integrazioa](#).

- 3. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotatu bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- *"Sormena lagun"*. Irudimena erabili, eta besteen bizitza asmatzea da ikasleei proposatuko dieguna. Argazki bat eman, eta argazkiko pertsona nongoa den eta zer nolako bizimodua duen irudikatu beharko dute.

Ariketa honetan, argazki batzuk erakutsiz soilik argazkiko pertsonak nongoak diren eta haiei buruzko ezaugarriren bat asmatzea proposatzen da (adibidez, zein lanbide duen, seme-alabarik baduen, euskaraz dakien ala ez...).

Lehenengo, 12 argazkiak ikusi ditzakegu, eta denen artean bi multzotan banatu, itxura kontuan hartuta: "hemengoak" direnak eta "kanpotarrak" direnak.


Ondoren, ikasle bakoitzari argazki bat egokituko zaio (ikasle kopuruaren arabera, ikasle batek baino gehiagok izan dezakete argazki bera).



Ikasle bakoitzak egokitu zaion argazkiko pertsonaren bizitza asmatu beharko du:

- Nola du izena?
- Nongoa da?
- Non bizi da?
- Zer hizkuntza hitz egiten ditu?
- Asmatu bere biografia (lanbidea, ikasketak, familia...)

Argazkiko pertsonen benetako nortasuna eta bizitza jakitea izango da hurrengo pausoa. Ikasle bakoitzak egokitu zaion pertsonaren elkarrizketa ikusiko du (elkarrizketak [101-L](#) proiektukoak dira):



Biografiak irakurri eta bideo-pasarte batzuk ikusi ondoren, ikasleek partekatu egingo dute (zenbaki bera dutenek elkarrekin egin dezakete): zer imajinatu duten, eta benetan pertsona horren bizitza nolakoa den. Pertsona hori aurkeztuko diete gelakideei, ahozko aurkezpen informal baten bidez (posible da bideo-pasarte bat erakustea ere, laburra baldin bada).

Aurkezpen guztien ondoren, iritzi-trukea eta hausnarketa egingo dute.

- Nor dira "hemengoak" eta nor "kanpotarrak"? Posible al da esatea?
- Aurreiritzirik izan al duzue bizitzak imajinatzekeo garaian?
- Zerk harritu zaituzte haien bizitzetatik? Zer nabarmenduko zenukete?
- Askok euskaraz dakite. Espero al zenuten? Horrek aldatzen al du pertsona horri buruzko ikuspegia? ([Euskara, integrazio hizkuntza](#) bideoa ikus daiteke)
- **101L** proiektuaren helburua Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak jasotzea da. Zer iruditzen zaizue?

- *"Bestearen azalean"*. Egunerokotasunean etorkinek bizi ditzaketen egoerak irudikatzeko rol-joko bat egingo dugu. Haien azalean jarriko dira ikasleak, haiek sentitzen dutena sentitzen saiatzeko.

Horretarako, "Bideoa ikusi aurretik" ataleko galderetako aurreiritziei buruzko zerranda hartu daiteke kontuan. Hiru edo lau ikasleko taldetxoetan, aurreiritzi bat aukeratu eta gidoi txiki bat prestatuko dute, eta gero antzeztu.

Adibide batzuk:

- Ikusten duzu pertsona batek laguntza behar duela, kaxa pisutsu bat kotxean sartzeko. Alde guztietara begira dabil, laguntza bila. Zu hor zaude, baina ez dizu laguntzarik eskatzen. Badirudi "hemengo" baten bila dabilela... Beltzarana zara. Sandro agertu da (italiarra) eta hari eskatu dio laguntza.
- Lore denda batean egin zenuen lana. Orain berriro jo duzu hara, lan eske. Lehen ez bezala, orain zapia daramazu buruan. Lana ukatu dizute: "Nik hartuko zintuzket, baina zer esango dute bezeroek?".
- Denda batean egiten duzu lana. Bezero bat sartu da, eta euskaraz agurtu duzu, badakizulako euskalduna dela. Zure itxura ikusita, erdaraz erantzun dizu. Euskaraz jarraitu duzu, baina hark erdarara jotzen du behin eta berriro.
- Supermerkatuan segurtasuneko zaintzaileak bizkar-zorroan zer daramazun erakusteko eskatu dizu. Ziur zaude zure itxurarengatik dela, zure lagunei ez dielako ezer begiratu. Gaztea zara eta zure gurasoak marokoarrak dira.
- Komentario arrazista bat entzun duzu. Zuri buruz ari dira. Pentsatu dute ez diezula ulertuko. Euskaraz erantzun diezu.

Antzezlan laburrak izango dira, esketxak. Grabatu egin daitezke, aurrerago ikusi eta aztertu ahal izateko. Bukatu eta gero, nola sentitu diren azaldu dezakete: eroso/deseroso sentitu diren, zer ikasi duten, aurreiritziak dituzten egunerokotasunean, inguruan komentario arrazistak entzuten diren... Iritzi-trukea egingo dute.

Gazte batzuk antzerkia egiten. Iturria: cepaim.org

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Kazetari-lanetan jardungo dute ikasleek. Elkarrizketa bat egitea izango da helburua, 2-3 laguneko taldetan. Helburua atzerritik Euskal Herrira bizitzera etorri den norbait elkarrizketatzea izango da.

- **Nor elkarrizketatu?** Familiako norbait, bizilaguna, lagun bat... Euskara ikasi baldin badu, lehenetsi egingo da (euskarak integrazioarako balio izan dion galdetu).
- **Zer jaso?** Noiz heldu zen Euskal Herrira, nondik, zein diren bere kulturako ezaugarri nagusiak, hemengo lagunak dituen, integratzea zaila gertatu zaion, nola ikasi duen hizkuntza, aurreiritziak jasan behar izan dituen, lana lortzeko arazoak izan dituen...
Ikasleek galdetegi bat prestatu beharko dute, baina inprobisazioari tarte bat uztea ere garrantzitsua da, aldeztatik prestatuta ez zeuden galderak sortu daitezkeelako elkarrizketan zehar.
- **Nola jaso?** Elkarrizketa bideoan grabatzea proposatzen da (ikus [jarraibide orokorrak](#)).

Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke grabazio horrekin. Adibidez:

- 1. Bideo-erreportaje labur bat** prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko diegu, adibideak emanez).
- 2. Elkarrizketa idatziz jarri**, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpititulua, sarrera, galdera-erantzunak, argazkia, argazki-oina...).

Egindako lana gelakideei aurkeztea eta azalpenak ematea izango da betiere azken pausoa.



Donostian 101 L proiekturako egindako elkarrizketa bat. Iturria: Badihardugu Elkartea

- 4. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak ezagutarazteko.

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira. Espazioa antolatzeko orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeko aukera bera dutela eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo ziurtatuko da. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez agertzeko.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek euren esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotuko dugu: mahai eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrian eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili)... Kontuan izan behar dugu transmisioa dela helburua, eta garrantzitsua dela giro aproposa sortzea. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dute, etxean bezala.



Ikasleek euren kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko, egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean

oinarritutako proiektua den heinean, garrantzia emango zaio inguru hurbilean testigantzak biltzeari.

Komeni denean, areto nagusia, liburutegia edo kanpoko eremuren bat ere erabil daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, antzezlanak edo jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).

DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zein jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero (azken ekoizpen bat aukeratuta), lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

1. *saioa*. Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikusi.
2. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere hasi gaitzke jarduerekin).
3. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk.
4. *saioa*. Ikerketa, informazio-bilketa edo -lanketa, ekoizpena sortzeko (kasuan-kasuan, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke).
5. *saioa*. Ekoizpena partekatu eta grabatu.
6. *saioa*. Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin.

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasleentzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Interneterako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek euren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Ezinbestekoa da konexio ona izatea.

- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak, etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurkitu ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

MATERIALAREN EGILEAK

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkarteak sortu du, www.ahotsak.eus proiektua oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenez arduratu da: elkarrizketak, bideo-gidoiak eta proposamen pedagogikoak. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. 2009tik dabil Badihardugun lanean. Elkarteak Hezkuntza arloan dituen proiektuen eta Ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0) aurreko urteetan ere. Kazetari eta iritzi-artikulugile lanetan ere aritua da (*Euskaldunon Egunkaria, Berria, Goiena*).
- **ITZIAR SAPSOOTHAM AREVALO.** Proposamen pedagogikoak sortu eta garatzen jardun du. Geografian lizentziaduna da eta liburutegi publikoetan lanean aritu da eta, aldi berean, hainbat ikerketa historiko-geografiko ere uztartu ditu. Ondarean aditua, 2020tik da Badihardugu Elkarteko langilea eta orduz geroztik dabil, besteak beste, Euskal Herriko Ahotsak (Ahotsak.eus) proiektuan lanean.
- **AINTZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetan aholkulari ardura izan du. Edukien transkripzioak egin ditu eta sortutako testu eta proposamenen egokitasunaz arduratu da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da eta Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren sortzaileetako bat. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratu da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikus-entzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamerari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile dihardu 2009tik. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **IZASKUN GASTON BALERDI.** Beharrezko izapide administratiboak egiteaz gainera, gida didaktikoaren diseinu eta maketazioaz arduratzen da. Arte Ederretan Lizentziatua da. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) maketatzen eta diseinatzen jardun du aurreko urteetan ere.

- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatu diogu, ahozko testuei dagokienean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHUn eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, eta baita Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoan ere. Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozko testuak lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

BIBLIOGRAFIA

- AMONARRIZ, Kike (2002). "Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran" in *IX-Jardunaldi pedagogikoak. Euskararen erabilera*. Donostia, EHIE: 417-465
- AMONARRIZ, Kike (2012). "Txisteeek euskaraz ez dute graziarik" in *Campus*. 79: 39. Leioa: EHU. https://issuu.com/upv-ehu/docs/campus_79_def_web/39
- ARAOLAZA, Oier (2020). *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan*. Doktore-tesia. Bilbo: UEU.
- BARQUIN, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.
- BELTRAN, Elena, MAQUIEIRA, Virginia (2001). *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*. Madril: Alianza Editorial.
- BERRITZEGUNE (2020). *Heziberri 2020*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- BRONCKART, Jean-Paul (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Madril: Fundación infancia y aprendizaje.
- COGAM (2013). *Homofobia en las aulas* <https://docs.google.com/viewer?a=v&pid=sites&srcid=b3JpYXBhdC5vcmd8aGV6a2lkZXR6YS1wbGFuYXxneDozZTM5NzZmNjdmNWM3ZjY5>
- De PIETRO, Jean-François, DOLZ, Joaquim (1997). "L'oral comme texte: comment construire un objet enseignable?" in *Education et recherches*. 1/1997: 335-339. Friburgo: Editions Universitaires Fribourg Suisse. <https://www.e-periodica.ch/diqbib/view?pid=szb-001:1997:19::457#4>
- DIEZ MINTEGUI, Carmen (2003). *Tradiciones culturales y legitimización del poder masculino*. Bilbo: EHU. http://www.ugr.es/~pwlac/G19_15Carmen_Diez_Mintequi.html
- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard. (1997). "Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia

realizada en la Suiza francófona” in *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura*. 11: 77-98. Genova: Université de Genève.

- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard (1998). *Pour un enseignement de l’oral*. Paris: ESF.
- DOLZ, Joaquim, NOVERRAZ, Michèle, SCHNEUWLY, Bernard. (2001). *Séquences didactiques pour l’oral et pour l’écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3^e/4^e). Brusela: De Boeck.
- DOLZ, Joaquim, VILA, Montserrat (1997). “L’oral formal” in *Articles* 12. Bartzelona: Grao.
- EIZMENDI, Iñaki (2015). “Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena” in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91. Andoain: Sei.
- ESNAOLA, Imanol (2000). “Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa” in *HIK-HASI*. 49. Donostia: HIK HASI.
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezaroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa>
- ECHEVERRIA, Begoña (2001). “Privileging masculinity in the social construction of Basque identity” in *Nations and Nationalism*, 7(3). 339-363. Los Angeles: University of California. https://38c3c988-8b73-491f-a929-fcca7c086139.filesusr.com/uqd/9bbd41_0fac911a1c384282be45a784b2530f0f.pdf
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza
- EUSKO JAURLARITZA (2016). *Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza-sisteman. Hurbilketa kualitatiboa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua. [Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza-sisteman. Hurbilketa kualitatiboa](#)
- EUSKO JAURLARITZA (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. Ale gehigarria. 218. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.

- EUSKO JAURLARITZA (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (1993). *Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua*. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias_2/eu_emakunde/adjuntos/guia.02.recursos.basicos.mujeres.eus.pdf.pdf
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2015). *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
- GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2015). “Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat” in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 96: 011-028. Andoain: Sei.
https://www.academia.edu/20802637/Ahozko_euskara_ikerketarako_unibertso_bat
- GEHITU (2008). *Nerabeen jarrerak aniztasun afektibo-sexualaren aurrean. 2007-2008 ikasturtea*.
<http://www.euskalnet.net/gehitumaqazine/IKERKETA20072008.pdf>
- IBARRA, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: N.U.P.
- IDIAZABAL, Itziar. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- IDIAZABAL, Itziar, GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2007) *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza>
- KAGAN, Spencer (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*. California: Kagan Publishing.
- LLEDO, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Gasteiz: Emakunde.
- PAVON, Amaia, ZUBEROGOITIA, Aitor (2011). “Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian” in *Uztaro*. 78: 31-49. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

- RAWLS, John, GABIKAGOJEASKOA, Alberto (2008). Justiziaren teoria bat. Pentsamenduaren klasikoak. Bilbo: Klasikoak.
<http://eimakatalogoa.eus/vufind/Record/16172>
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida*. I tomoa. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias_2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak*. II tomoa. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias_2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.02.instrumentos.elaboracion.proyecto.educativo.eus.pdf.pdf
- RINCÓN, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Gasteiz: Emakunde
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011). *Euskal Herriko Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketa 2011 EMAITZAK*. Euskal Herriko VI. neurketa.
<https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/euskal-herriko-hizkuntza-erabileraren-kale-neurketa-2011-emaitzak-2/>
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2013). *Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilerari buruzko datuak (LH4 eta DBH2)*.
<http://www.soziolinguistika.org/es/arrue/2011txostena>
- VIZCARRA, María Teresa, MACAZAGA, Ana María, REKALDE, Itziar. (2009). *Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: Emakunde.
- ZALBIDE, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?* Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Donostia: Ikastolen Elkarte.
- ZENBAITEN ARTEAN (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Gasteiz: Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar.
- ZENBAITEN ARTEAN (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ZUAZO, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: ELKAR.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala

2023/11/06